

2025
2.hiruhilekoa

EAEkoekonomiaren **hiruhilabetekaria**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA
Ekonomia Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO
Dirección de Economía

EAEko ekonomiaren hiruhilabetekaria

LABURPENA	3
EKONOMIAREN INGURUNEA	5
EAE-KO EKONOMIA	9
Ekoizpena eta enplegua	9
Barne eta kanpo eskaria	14
Prezioak, soldatak eta kostuak	21
Arlo publikoa	25
Arlo finantzarioa	27
Aurreikuspenak	35

Irudien aurkibidea

Munduko ekonomia. BPGa (I)	5
Munduko ekonomia. BPGa (II)	7
Enpleguaren bilakaera	12
Etxebizitzaren hipoteken bilakaera	33
2025eko eta 2026ko aurreikuspenak (I)	41
2025eko eta 2026ko aurreikuspenak (II)	42

Taulen aurkibidea

Eskaintzaren aldagaiak	9
Jardueraren adierazleak	10
Eskariaren aldagaiak	14
Kontsumo eta inbertsioaren adierazleak	15
Esportazioak produktuen arabera	17
Esportazioen helmuga	18
Inportazioen jatorria	20
Kontsumoko prezioen indizearen banaketa	21
EAEko kontsumoko prezioen indizea	23

Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak.....	24
Lan kostuak	25
Tributu itunduen bilakaera (urtarrila-apirila).....	26
Adierazle monetario eta finantzarioak (I)	28
Adierazle monetario eta finantzarioak (II)	30
Kreditu eta gordailuak.....	34
Ekonomia aurreikuspenak.....	35
Espainiako ekonomiarako aurreikuspen ekonomikoak (2025eko maiatza)	37
Aurreikuspenak egiteko hipotesiak (2025eko ekaina).....	38
EAEko ekonomiarako aurreikuspenak hiruhilekoka (2025eko ekaina).....	39

LABURPENA

2025eko lehen hiruhilekoan, EAEko ekonomia %2,1 hazi zen urte arteko tasan, aurreko hiruhilekoko tasa berdinduz, eta 2024 osoan baino hamarren bat gutxiago bakarrik. Beraz, erritmoa %2,0tik baino pixka bat gorago egonkortu dela hautematen da. Emaizta hori Ekonomia Zuzendaritzak martxoan argitaratu zuen aurreikuspena (%1,9) baino bi hamarren altuagoa da, eta aurtengo BPGaren igoera 2024koaren oso antzekoa izango delako ideia indartzen du, bai intentsitateari dagokionez, bai osaerari dagokionez. Hazkunde tasaren egonkortasun hori ez dator bat Espainiako ekonomiak erakutsi duen moteltze leunarekin, nahiz eta oraindik oso sendo dagoen (%2,8), ezta euro eremuaren bizkortzearekin ere (%1,5).

Sektoreka eskainitako ikuspegiak adierazten du EAEko ekonomiaren hazkundearen oinarria zerbitzuen dinamismoa dela oraindik ere, eta zerbitzuen balio erantsia %2,6 handitu zela lehen hiruhilekoan, aurreko lau hiruhilekoetako emaitzak ia aldaketarik gabe mantenduz (2024 osorako datua ere %2,6 izan zen). Sektorea osatzen duten hiru jarduera multzoek eskuratu zituzten urte arteko tasak eraikuntzak eta zerbitzuek lortutakoen gainetik kokatu ziren. Hala, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeak %2,9ko hazkundera izan zuen, jardueraren bizkortzeko joera argia erakutsiz. Bestalde, administrazio publikoaren, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte zerbitzuen taldeak kontrako bilakaera izan du, eta erritmoa moteldu du, %2,0raino. Azkenik, gainerako zerbitzuen balio erantsia %2,7 handitu zen. Adierazi behar da hiru taldeen arteko arrakala pixka bat ireki den arren, oraindik ehuneko puntu bat baino txikiagoa dela, eta, beraz, txikitzat hartu behar dela.

Zerbitzuek bizi duten egoera ona urrun dago industriaren ahuleziaz, %0,7 bakarrik hazi baitzen lehen hiruhilekoan, aurreko aldian baino bi hamarren gehiago, baina ekonomia osoaren batez bestekoaren oso azpitik. Egoera kezagarriagoa da manufakturen atalean, hazkundera marjinala baino ez baitzen izan (%0,3). Nazioarteko panorama ez da erabat argitu, eta AEBek ezarritako muga zergen igoera handiak eragindako gerra komertzialak inbertitzeko erabakiei eragiten die, eta, ondorioz, industriaren bilakaerari, bai EAEkoari, bai Europakoari. Protekzionismo horri gehitu behar zaizkio energiaren kostu altua, nahiz eta azken hilekoetan merkatu egin den, eta polarizazio geopolitikoa.

Eraikuntzak ezin izan zion eutsi aurreko hiruhilekoko hazkunde handiari, baina oraindik ere sendotasun handia erakutsi zuen, balio erantsia %1,6 handitu baitzuen, 2024 osoan lortu zuen tasa bera. Kostuak apaldu egin dira bai eraikuntzan, bai ingeniarietza zibilean, eta orain %0,5etik beherako igoerak dituzte. Osagaien arabera, eraikinen atalaren bilakaera ona izan da bultzadarik handiena eman duena, etxebizitzaren eskari handiari etekina atera baitio; obra zibilak, ordea, aurreko aldietan erakutsitako bultzada nabarmena geldiarazi du.

Eskariaren ikuspegitik, barne eskariaren sendotasuna nabarmentzen da, urte arteko %2,4 hazi baitzen, aurreko hiruhilekoko tasa bera. Aitzitik, kanpo saldoak hiru hamarren kendu zizkion BPGaren hazkundeari, ondasun eta zerbitzuen inportazioek esportazioek baino gorakada handiagoa izan zutelako. Zehazki, eta termino errealetan neurtuta, lehenengoak %2,1 igo ziren eta bigarrenak %1,7. Bi kasuetan, aurreko hiruhilekoko zifra eskasak hobetu ziren, baita 2023ko eta 2024ko batez besteko balioak ere. Gorakadaren zati bat erosketak aurreratzearen ondorio izan daiteke, muga zerga handiagoak saihesteko.

Barne eskariaren bi osagai nagusien arteko orekak bere horretan jarraitu du, tamaina bertsuko aldakuntza tasak lortu baitzituzten. Alde batetik, azken kontsumoko gastua %2,4 areagotu zen hiruhilekoan, eta kapitalaren eraketa gordina, berriz, %2,2. Bi kasuetan, lortutako tasak aurreko aldietan erregistratutakoen oso antzekoak izan ziren. Kontsumoaren barruan, familiek egindakoaren bizkortze txikia berretsi da, tasa orain %2,6koa baita, enplegua sortzeari eta inflazioa kontrolatu ahala erosteko ahalmena berreskuratzeari esker. Beste aldetik, administrazio publikoen kontsumoa %2,0raino apaldu zen, egonkortasuneko aldi batzuen ondoren. Inbertsioaren barruan, ekipamendurako ondasunetan egindakoaren sendotasuna nabarmentzen da (%3,0), interes tasen jaitsieraren ondorioz kostuak merkatu direlako, ziurgabetasuna nagusi izan arren. Azkenik, gainerako inbertsioa, eraikuntzan egindakoa barne, %1,7 hobetu zen.

EAEko ekonomiaren egoera ona enplegura eraman da, lehen hiruhilekoan %1,5 hazi baitzen lanaldi osoko lanpostu baliokideetan, aurreko bi hiruhilekoetan baino hamarren bat gutxiago besterik ez. Milioi bat lanpostuen kopurua gero eta gertuago dago. Enplegu berri gehienak zerbitzu jardueretan kontzentratu ziren (%1,8), baina industrian (%0,6) eta eraikuntzan (%1,1) ere gehitu ziren. Bigarren hiruhilekoari buruz eskuragarri dagoen informazioaren arabera, erritmo horri eutsiko zaio.


Inflazioaren moderazioa da EAEko ekonomiaren hazkundearen gakoetako bat. Aurtengo hasieran, aldakuntza tasa %3,5eraino igo zen, baina harez geroztik moteltzeko joera hartu du eta maiatzean tasa %2,4an kokatu zen. Azpiko inflazioa, berriz, %2,5era apaldu zen. Beraz, urratsak egiten ari dira Europako Banku Zentralak (EBZ) inflazioa %2,0an jartzeko duen helburua betetzeko.

Testuinguruaren hipotesiak eguneratu izanak eta koiunturazko datu berrienak sartzeak agertoki makroekonomiko berria ekarri dute, martxokoarekin alderatuta aldaketa askorik egin gabe. Zehazki, EAEko BPGa aurtun %2,1 haziko dela eta datorren urteko tasa hamarren bat apalduko dela mantendu da, %1,7raino. Hazkundera barne eskaritik etorriko da, bai inbertsioetik, bai kontsumotik. Industriaren susperraldi txiki bat aurreikusten da, baina zerbitzuek lortuko dute hazkunderik handiena.

EKONOMIAREN INGURUNEA

Azkenaldi honetan gertatu diren merkataritza asaldurak gorabehera, munduko jarduera ekonomikoa egonkor mantendu zen. Finantza baldintzak pixkanaka normalizatzen ari diren eta inflazioaren presioak moteltzen ari diren testuinguru batean, lehen kalkuluen arabera, jarduera globala %2,7 inguru hazi zen aurtengo lehen hiru hilabeteetan. Kontsumo pribatuak eskariaren motor nagusia izaten jarraitu zuen, eta inbertsioak, berriz, egonkortzeko seinaleak erakutsi zituen. Kanpo sektoreari dagokionez, Trumpen muga zergen politikak ez du oraindik hondamendirik eragin nazioarteko merkataritzaren bilakaeran. Izan ere, munduko merkataritzak gora egin zuen lehen hiruhilekoan, AEBetako inportazioen aurrerapenari esker, merkataritza politikak bira egingo zuela aurreikusita. Hala ere, eragile ekonomiko eta inbertitzaile nagusien konfiantza nabarmen okertu da, eta, beraz, ez da baztertzen datozen hilabeteetan munduko merkataritza modu esanguratsuan moteltzea.

Munduko ekonomia. BPGa (I)
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: ELGA.

Txinan, 2025aren hasieran bilakaera ekonomiko egonkorra izan zen, agintariek aplikatutako politika makroekonomikoen jarraitutasunari eta eraginkortasunari esker. Kontsumoa suspertzeko neurriek barne eskariari eusten lagundu zuten, lan merkatua pixkanaka hobetzen ari zen testuinguru batean, langabezia tasa apirilean %5,1era jaitsi baitzen, otsailean erregistratutako %5,4tik, azken bi urteetan erregistratu den tasarik txikienetik. Testuinguru horretan, BPGa %5,4 hazi zen lehen hiruhilekoan, eta aurreko hiruhilekoko erritmoa berdindu zuen. Ziurgabetasun globala gorabehera, esportazioek portaera sendoa erakutsi zuten,

martxoan %12,4 hazi baitziren, eta txikizkako salmentak, berriz, %5,9 areagotu ziren, 2023ko abendutik izandako erritmorik handiena, kontsumoari laguntzeko programek bultzatuta. Hala ere, oraindik zalantzak daude susperraldi horren sendotasunari buruz. Kontsumitzaileen konfiantzak txikia izaten jarraitzen du, eta horrek gastua gehiago suspertzea mugatzen du. Halaber, higiezinaren sektoreak ahultasun zantzuak erakusten segitzen du. Etxebizitzako inbertsioak %9,9 egin zuen behera, eta eraikuntzak atzeratuta jarraitzen du salmentekiko. Horrez gain, AEBekin gero eta merkataritza tentsio handiagoak daude, herrialdearen egoera ekonomikoari ziurgabetasuna gehitzen diotenak.

Indiak, berriz, BPGaren urte arteko %6,7ko hazkunde tasa eskuratu zuen, 2024ko lehen sei hilekoko erregistroen ildotik, eta iazko bigarren erdian izandako beheranzko joera urrundu du. Beste hiru hileko batez, barne eskariaren indarra kontsumo publikoaren gorakadan oinarritu zen, eta nabarmen handitu zen zerga handiagoen ondoriozko zerga bultzadaren eta subsidioen murrizketaren ondorioz. Halaber, eskaintzaren aldetik, lehen sektorea indartsu hazi zen, nekazaritzaren ekoizpen hobeak eta inflazioaren apaltzeak bultzatuta. Bestalde, Mexikoko BPGa %1,6 hazi zen urte batetik bestera hiru hileko berean, 2024ko itxiera ahularekin alderatuta, baina oraindik bere potentzialaren azpitik. Hazkundera, batez ere, zerbitzuen sektoreak eta inbertsio publikoaren susperraldi partzial batek bultzatu zuten. Hala ere, kontsumo pribatuak bere horretan jarraitu zuen, AEBekiko merkataritza inguruneak eragindako ziurgabetasunak eta lan merkatuko tentsioek eraginda.

Herrialde aurreratuei dagokienez, ELGaren hazkunde globala %1,6 izan zen aurtengo lehen hiru hilekoan. Zifra horrek moteltzeko joera txiki bat erakusten du, azken bi urteetan ikusitako hazkunde tasa altuenekin eta nahiko egonkorrekin alderatuta. Neurri handi batean, AEBetako ekonomiaren bultzada galtzearen ondorio da moderazio hori; izan ere, euroaren eremuak, Europar Batasunak eta Japoniako ekonomiak hazkundera bizkortu zuten aurreko hiru hilekoarekin alderatuta.


Bereziki, AEBetako ekonomian, urte hasierako muga zerga berrien iragarkiek erosketak aurreratzea eragin zuten, eta horrek inportazioak %13,4ko hazkundera bultzatu zituen, 2021eko hirugarren hiru hilekotik lortu ez zen mailara, alegia. Inportazioen hazkunde nabarmen horrek lau hamarren kendu zizkion BPGaren hazkundeari. Kontsumitzaileen konfiantzan beherakada nabarmena hauteman zen arren, barne eskariak ez zuen eraginik izan oraingoz. Horrek indartsu jarraitu zuen, kontsumo pribatu dinamikoak, inbertsio sendoak eta lan merkatu indartsuak bultzatuta, eta langabezia tasa egonkor mantendu zen maiatzean (%4,2). Gainera, inflazioak bere horretan jarraitu zuen, baita tentsio komertzial gero eta handiagoen testuinguruan ere. Oro har, faktore horiei esker, BPGa %2,1 hazi zen, azken bi urteko erritmo baxuena baita, nahiz eta oraindik tasa sendoa izan. Hala ere, muga zergen politikaren inguruko ziurgabetasun iraunkorrak eta gastu publikoaren murrizketek moteltze nabarmenago baten beldurrak piztu dituzte, bereziki *Liberation Day* delakoaren ondoren. Funtsezkoa izango da Trumpen

Administrazioaren hurrengo urratsak behatzea, datozen hilabeteetan ekonomiak izango duen bilakaerari aurrea hartzeko.


Japoniaren ekonomia %1,7 hazi zen aurtengo lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gehiago, eta, horrela, 2024ko erdialdean hasitako goranzko ibilbidea sendotu zen. hazkunde hori, batez ere, soldata igoera handi batek bultzatu zuen, gastu pribatua bultzatzen lagundu baitzuen (baita prezioak ere, apirilean %3,5ean kokatu baitziren), eta AEBetako merkataritza alorreko muga zerga handiagoek ekarritako kontrako haizeak indargabetu zituen. Horrela, barne eskaria hazkundearen eragile bihurtu zen, kontsumoaren eta inbertsioaren bizkortzeari esker, publikoa zein pribatua. Oro har, barne eskariak 2,4 puntuko ekarpena egin zion BPGaren hazkundeari. Aitzitik, inportazioak ere nabarmen aurreratu ziren, urte arteko %6,4 hazi baitziren eta BPGari 1,5 puntu kendu baitzitzaizkion. Horri esportazioen portaera ez hain dinamikoa gehitu zitzaion, eta, horren ondorioz, kanpoko eskariak guztira zazpi hamarren kendu zizkion jarduera ekonomikoari.

Munduko ekonomia. BPGa (II) Urte arteko aldakuntza tasak

AEB



Eurogunea



Iturria: Eurostat eta BEA.

Euroaren eremuak hazkunde bizkorra eskuratu zuen 2025eko lehen hilabeteetan. Oraingoz, AEBetako merkataritza politikaren inguruko ziurgabetasunak ez du eraginik izan euroaren eremuan. Aitzitik, familien errentek lortu duten igoeraz eta lan merkatuaren erresistentzia gaitasunaz baliatu da, kontsumoaren pixkanakako gorakada babestu baitzuten. Hala eta guztiz ere, kontsumitzaileen konfiantza ahula da eta aurrezki tasa handia. Testuinguru horri esker, kontsumo pribatua %1,3 areagotu zen, eta, horrekin batera, barne eskaria, BPGa %1,5era arte bultzatu zuena. Hala ere, bigarren hiruhilekoko lehen adierazleak ingurune zalantzarriagoa eta

presionatuagoa islatzen hasi dira. Bereziki, euroaren eremuko PMI indize konposatua berriro moteldu zen maiatzean (50,2), uzkurdua lurraldera hurbilduz. Garrantzitsuena sektoreen arteko dinamika aldaketa izan zen: manufakturen jarduerak ia bi urteko ahultasunaren ondoren hedapen eremuan sartzea lortu zuen (51,5), baina zerbitzuen sektoreak eremu uzkuerrera egin zuen atzera, 49,7ko indizearekin.

Alemaniaiko ekonomiak urte arteko hazkunde hutsala (%0,0) jaso zuen aurtengo lehen hiruhilekoan. Datua ospatzeko modukoa ez bada ere, hobekuntza dakar aurreko hiruhilekoekin alderatuta, eta ez dator bat euroguneko ekonomia handiena inguratu duten aurreikuspen ezkorrekin, urte eta erdiz jarraian atzeraldian egon ondoren. Eraitza hori ezin zaio igurikimen aldaketa bati egotzi, Friedrich Merz kontserbadoreak gidatutako gobernu berriaren neurri sortaren aurrean, aldi horretan Olaf Scholzen exekutiboak jardunean jarraitzen baitzuen. Hobekuntza txiki hori, batez ere, kontsumo pribatuaren gorakadak eragin du, bi urtean lehen aldiz %1,0tik gora hazi baitzen, bai eta gastu publikoaren sendotasunak ere, inbertsioaren eta esportazioen beherakada partzialki konpentsatzea lortu baitzuten. Azken horiek uzkuertze erritmoa moteldu zuten arren, ez zuten berriro hazkunde tasa positiboei heltzea lortu. Alemaniak Txinakoa eta AEBetako bezalako merkatu giltzarriekiko duen mendekotasun handiak agerian utzi du nazioarteko merkataritza politiken aldaketan aurrean duen ahultasuna, eta horrek susperraldia oztopatzen jarraitzen du.

Frantzia egonkortasuna izan zen nagusi. Kontsumoak, publikoak zein pribatuak, erresiliente izaten jarraitu zuen, eta inbertsioak moteldu egin zuen beherakadaren erritmoa. Horri esker, kanpoko eskariaren narriadura konpentsatu ahal izan zen, eta esportazioak berriro murriztu ziren, garraio ekipamenduen eta produktu kimikoen bidalketetan izandako jaitziera handiaren ondorioz. Inportazioek, berriz, gora egin zuten, energiaren erosketek bultzatuta, batez ere gasaren eta elektrizitatearen erosketek eta beste ondasun industrial batzuen erosketek bultzatuta. Horren guztiaren ondorioz, Frantziako ekonomiak %0,6ko hazkunde tasari eustea lortu zuen.

Italiak ere egonkortasun hori bizi izan zuen eta %0,7 hazi zen, aurreko erregistrotik hamarren bat gorago. Azkenik, Espainiaiko ekonomia izan zen eskualdeko ekonomia handien artean erritmoa galdu zuen bakarra, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Nolanahi ere, bere dinamismoa gainontzeko edozein herrialderena baino askoz biziagoa izan zen. Zehazki, BPGa %2,8 hazi zen, eta, bazkide komertzialak ez bezala, barne eskariaren agregatu guztiek hamarrenak ekarri zizkieten hazkundeari, baita inbertsioak ere, gainontzeko herrialdeetan guztietan nabarmen jaitsi baitzen. Osagaien arabera banakapenak hazkunde eredu sendoa erakusten du, barne eskariak BPGaren hazkundeari 3,2 puntuko ekarpena eginez. Lan merkatuak bilakaera positiboa izan du, eta langabezia tasa %10,9an kokatu zen apirilean, euroaren taldeko handiena oraindik.

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

2025eko lehen hiruhilekoan, EAEko ekonomia %2,1 hazi zen urte arteko tasan, aurreko hiruhilekoko kopuru bera, eta 2024 osoan baino hamarren bat gutxiago bakarrik. Beraz, hazkunde erritmoan transmititzen duen irudia egonkortasun handikoa da. Ekonomia Zuzendaritzaren aurreikuspenak moteltze txiki bat aurreikusten zuen (%1,9), 2024ko lehen hiruhilekoko datu onarekin alderatuta (%2,4), baina intentsitate galera hori ez da gertatu, eta, adierazi den bezala, igoera %2,0tik gora mantendu da. EAEko ekonomiaren hazkunde erritmoaren egonkortasuna ez dator bat Espainiako ekonomiak aldi horretan bizitako dezelerazioarekin (%3,3tik %2,8ra moteldu zuen erritmoa) eta euro eremuaren azelerazioarekin (%1,5era iritsi zen lehen hiruhilekoan).

ESKAINTZAREN ALDAGAIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2023	2024	2024				2025
			I	II	III	IV	I
BPG erreala	2,7	2,2	2,4	2,1	2,0	2,1	2,1
Nekazaritza eta arrantza	16,0	3,1	6,5	2,8	1,0	2,2	-1,0
Industria eta energia	1,8	1,0	1,7	1,0	0,8	0,5	0,7
- Manufakturen industria	0,2	0,6	0,8	0,9	0,6	0,1	0,3
Eraikuntza	2,6	1,6	2,2	1,0	0,9	2,2	1,6
Zerbitzuak	3,0	2,6	2,6	2,5	2,5	2,7	2,6
- Merkat., ostalaritza eta garraioa	1,1	1,8	1,2	1,4	2,0	2,6	2,9
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	0,9	2,9	3,0	3,1	3,1	2,4	2,0
- Gainontzeko zerbitzuak	5,4	2,9	3,3	2,8	2,5	2,9	2,7
Balio erantsi gordina	2,8	2,1	2,4	2,1	2,0	2,1	2,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,7	2,3	2,3	2,3	2,2	2,2	2,3

Iturria: Eustat.

Jarduera sektoreen arabera azterketak adierazten du EAEko industriak ez duela suspertzeko zantzurik ematen eta ahultasun nabarmeneko irudia ematen du, balio erantsiaren %0,7ko igoerarekin, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gehiago, baina ekonomia osoaren batez bestekotik oso urrun. Bilakaera apalagoa da manufakturen kasuan, %0,3ko hazkunde marjinala

baino ez baitzuten izan. Azken kasu horretan, jardueraren ahultasuna bi urtez luzatu da, eta urte horietan ez du lortu gutxienez %1,0ko hazkundea izatea. Sektorearen zailtasunak ez dira EAEko industriarenak bakarrik, zeren eta Europako herrialdeetan ere hautematen baitira, eta zerikusia dute energiaren kostu handiarekin, nahiz eta prezioa moteltzen doan, nazioarteko merkataritzaren galgarekin, polarizazio geostrategikorekin eta protekzionismoaren handitzearekin, eta AEBetako presidente berriak muga zergen arloan etengabe egindako irizpide aldaketek sortzen duten ziurgabetasunarekin.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2023	2024	2024				2025
			I	II	III	IV	I
Industria							
Industria produkzioaren indizea	1,0	-1,1	-0,8	-1,0	-1,0	-1,5	-0,9
Negozio zifren indizea	-0,4	-5,0	-9,6	-2,1	-6,8	-1,5	-0,4
Industria giroaren indizea (maila)	-14,9	-8,6	-15,1	-2,9	-2,5	-14,1	-13,7
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,2	0,9	1,2	1,1	0,7	0,6	0,4
Eraikuntza							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	8,8	2,2	7,0	-1,8	0,1	3,7	2,3
Etxebizitza berriak eraikit. oniritziak	-17,4	-1,0	12,0	-29,0	-0,8	15,7	-27,6
Etxebizitzten salerosketak	-13,9	13,6	-12,6	-0,9	30,8	48,4	25,9
Gizarte Segurantzako afiliazioa	0,8	0,1	0,1	-0,3	0,2	0,5	1,2
Zerbitzuak							
Merkataritza salmenten indizea	0,6	0,6	-1,6	0,1	1,1	2,6	1,2
Merkatuko beste zerbitzu batzuen	4,6	2,2	2,2	1,1	1,4	4,1	4,0
Negozio zifren indizea	2,9	0,7	-3,3	1,6	1,1	3,3	7,2
Hegazkinen bidezko bidaiariak	24,0	5,4	13,9	7,4	0,5	3,2	1,6
Hoteletan igarotako gaualdiak	12,0	3,4	9,2	2,8	1,1	3,1	0,5
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,8	1,8	2,2	2,0	1,5	1,4	1,3

Iturria: Ekonomia Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerio, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Gizarte Segurantza eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Jadanik igaro den bigarren hiruhilekoaren zatian, industria suspertzeko zantzurik ez da hauteman oraindik. Hala, industriaren ekoizpenak apirilean, egutegiaren ondorioak zuzenduta, %1,3ko jaitsiera izan zuen, eta jaitsiera hori ez da oso desberdina 2024ko laugarren eta hirugarren hiruhilekoetan, hurrenez hurren, izan zituen %0,9ko eta %1,5eko jaitsierekin alderatuta. Produkzioaren jaitsiera horren zati esanguratsu bat energian kontzentratzen da,

zeina gorabehera handienak izan ohi dituen osagaia izan ohi den, eta apirilean %7,6ko murrizketa ezagutu zuena, baina zeinu negatiboa izan zuten, halaber, ekipamendurako ondasunen fabrikazioak (-%3,8) eta bitarteko ondasunenak (-%1,2). Aitzitik, bilakaera positiboa da kontsumo ondasunen ekoizpenean (%4,1), kontsumoko ondasun ez-iraunkorrek izandako bultzadari esker (%5,1).

Industriaren balio erantsiak eta ekoizpenak iradokitzen duten ahultasuna sektoreko enpresei egiten zaizkien iritzi inkestetan ere nabaritzen da. Hain zuzen ere, apirilko eta maiatzeko industria giroaren indizeak eutsi egin dio estatistika horrek azken bi urteetan izan duen tonu ezkorriari, bihilekoaren batez besteko balioa -16,3koa izan baita, aurreko sei hilabeteetan erregistratu zen -14a baino pixka bat okerragoa. Adierazle horren hiru osagaiek irudi ezkorra erakusten dute. Alde batetik, eskaera zorroa 2023ko udatik erregistratu den txikiena da une hauetan. Beste aldetik, saldu gabeko produktu bukatuen stocka asko handitu da. Azkenik, produkzioaren joerak okerrera egin du azken bi hilabeteetan. Sektoreko enpleguari buruzko aurreikuspenak ere ez dira positiboak, batez ere 2023ko eta 2024ko batez bestekoekin alderatuz gero.

Eraikuntzak %1,6 areagotu zuen bere balio erantsia aurtengo lehen hiruhilekoan, ekonomia osoaren batez besteko hazkunde tasa baino puntu erdi bat gutxiago, baina sektore horrek 2024 osoan lortu zuen balioarekin bat datorrena. Beraz, gorabehera batzuekin eboluzionatu arren, tonu hedakor moderatua mantentzen du. Duela urte gutxi batzuk sektorea baldintzatu zuten kostu altuak moteldu egin ziren iaz, eta are gehiago apaldu dira 2025ean igarotako tartean, nahiz eta maila handia izaten jarraitzen duen, batez ere lehengaien kasuan. Sektorearen bi osagaien artean, eraikinen atala da portaera dinamikoena erakusten ari dena, lehen hiruhilekoan urte arteko %3,5eko aldakuntzarekin, aurreko balioen oso gainera, ingeniariaritzak zibilak bere ziklo hedakorra geldiarazi duen bitartean (%0,0).


Une honetako sektorerik dinamikoena zerbitzuena da berriro, urte arteko balio erantsiaren %2,6ko hazkundearekin, eta zifra hori errepikatu egin da, gorabehera txikiekin, azken zazpi hiruhilekoetan. Hala eta guztiz ere, bilakaera desberdinak hauteman dira sektorea osatzen duten hiru jarduera taldeetan. Izan ere, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldean, balio erantsiaren hazkunde erritmoaren azelerazioa nabarmentzen da, 2023ko laugarren hiruhilekoan izan zuen %0,1etik aurtengo lehen hiruhilekoko %2,9 aipagarria. Aitzitik, sektore publikoarekin lotura handiena duten jarduerak (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak) goitik behera joan dira, eta %2,0ko aldakuntza tasa jaso dute. Azkenik, gainerako zerbitzuen balio erantsia %2,7 igo zen, aurreko balioen aldean alde txikiekin. Adierazi behar da aipatutako hiru zerbitzu taldeak industria eta eraikuntza baino gehiago hazi zirela.

Bigarren hiruhilekoan igaro diren hilabeteetan, zerbitzuek bilakaera onari eutsi diote, argitaratutako koiuntura adierazleetan ikus daitekeenez. Izan ere, turismoarekin lotura handiena duten adierazleen arabera, Aste Santuak, aurten apirilean ospatu baita, saldo positiboa izan zuen, bai gualdietan (%2,0 gehitu ziren martxo eta apirila batuta), bai EAEko aireportuetatik egindako bidaiarien garraioan (%5,0 inguru igo ziren). Datu horiei apirileko txikizkako merkataritzaren martxa ona gehitu behar zaie, salmentak %4,4 igo baitziren, aurreko hiru hiruhilekoetan erregistratutakoaren oso antzeko tasa, inflazioaren kontrolari erantzuten ari dela dirudiena.


Lan merkatua EAEko ekonomiaren hazkundeaz baliatzen ari da. Lehenengo hiruhilekoan, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua %1,5 handitu zen urte arteko tasan neurtuta, hots, aurreko bi hiruhilekoetan baino hamarren bat gutxiago besterik ez. Tasa horren ondorioz, 14.800 enplegu garbi baino gehiago sortu dira azken urtean, eta EAEko ekonomiaren enplegu guztiak milioi bat izatera hurbiltzen dira, orain arte inoiz lortu ez den zifra baita. Izan ere, aurtengo lehen hiruhilekorako zenbatetsitako ia 997.000 lanpostuak inoizko kopururik handiena dira. Azken urtean sortutako enplegu gehienak (13.000 pasatxo) zerbitzu jardueretan kontzentratu ziren, %1,8ko aldakuntza tasarekin, baina gainerako sektore ekonomikoek ere lanpostu berriak ekarri zituzten guztizkora. Zehatzago adierazita, industriak enpleguaren %0,6ko hazkunde tasa izan zuen, hau da, ia 1.200 lanpostu. Guztira, 200.000 enplegu pasatxo daude industrian, 2008-2009ko finantza krisiaren aurretik zituen 250.000 enpleguetatik oso urrun. Bestalde, eraikuntzan %1,1 hazi zen enplegua, eta 629 enplegu ekarri zituen guztizkora.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantza.

Enplegu berria zerbitzu jardueretan kontzentratzeak emakumea lan merkatuan sartzen laguntzen du. BJA inkestak argitaratutako informazioaren arabera, 2025eko lehen hiruhilekoan landunen kopurua %0,9 igo zen urte batetik bestera, baina emakumeena %1,8 areagotu zen. Tasa horrek adierazten du 8.600 emakume inguruk lana lortu zutela azken urtean. Horri esker, 16 eta 64 urte bitarteko emakumeen okupazio tasak gora egin du 2024ko lehen hiruhilekoko %66,9tik aurtengo hasierako %68,3ra. Hala ere, gizonek lortzen duten %73,2 baino bost puntu beherago dago oraindik.

Enpleguak hazten jarraitu du bigarren hiruhilekoan igarotako hilabeteetan, Gizarte Segurantzak argitaratutako informaziotik ondoriozta daitekeenez. Hala, apirilean eta maiatzean, afiliazioaren urte arteko hazkundea %1,0koa izan zen, lehen hiruhilekoko %1,1etik oso gertu, nahiz eta hazkunde erritmoan moteltzeko joera oso txikia nabari den. Sexuaren arabera, emakumeen aldeko diferentzialak bere horretan jarraitzen du; izan ere, emakumeen afiliazioa %1,2 hazi da, eta gizonena, berriz, %0,8, emakumeak zerbitzuetan kontzentratuta egoteagatik. Eraikuntzak ere tasa garrantzitsuak izan ditu azken hilabeteetan (%1,8), baina industrian agortze bat nabari da, ez baitu ekarpenik egin (%0,0), ez apirilean, ez maiatzean. Jarduera adarren arabera, nabarmentzekoa da osasungintzak (ia 2.500 afiliazio berri azken urtean), jarduera profesional, zientifiko eta teknikoek (1.900 afiliazio baino gehiago) eta hezkuntzak (1.800 afiliazio berri baino gehiago) izan duten bultzada.

BJA argitaratzen duen biztanleria aktiboaren datuetan hautematen da emakumea lan merkatuan gero eta gehiago sartzen ari dela. Azken urtean, estatistika horrek adierazten du 3.400 emakume inguruk parte hartu dutela eta, aitzitik, 5.500 gizon inguruk utzi dutela lan merkatua, saldo apur bat negatiboa utziz. Enplegua sortzeak eta biztanleria aktiboaren jaitsierak 10.600 langabe inguru murrizten lagundu dute, eta horiek ia zati berdinetan banatzen dira emakumeen eta gizonen artean. Ondorioz, langabezia tasa osoa %7,0an kokatu zen, 2024ko lehen hiruhilekoan zenbatetsitako %7,9 baino ia puntu bat beherago. Azken urtean urratsak eman dira sexuaren araberako langabezia tasaren konbergentzian, eta, beraz, emakumeen tasa puntu bat baino zertxobait gehiago murriztu da, %7,1era iritsi arte, eta gizonena, berriz, %6,8an geratu da.

BPGaren hazkundeak (%2,1) eta enpleguarenak (%1,5) lan faktorearen itxurazko produktibitatearen %0,6ko irabazia uzten dute, 2024ko batez bestekoa (%0,4) baino hamarren pare bat gehiago, nahiz eta irabazi hori nahiko txikia den bere balio historikoarekin alderatuz gero (%1,0). Produktibitatearen emaitza apala industriak lortutako hobekuntza txikiaren ondorio da, %0,1ekoa soilik, bere batezbesteko historikoa %1,5era hurbiltzen denean. Aitzitik, bai eraikuntzak (%0,5) bai zerbitzuek (%0,8) produktibitate irabazi handixeagoak izan zituzten, batez besteko historikoek baino.

Barne eta kanpo eskaria

2025eko lehen hiruhilekoan, EAEko ekonomiaren hazkundea barne eskariaren sendotasunean oinarritu zen, eta kanpo saldoak ekarpen negatiboa egin zion BPGaren hazkunderari, hiru hamarren ingurukoa. Ekarpen hori aurreko hiruhilekoan jasotakoaren antzekoa da, baina orduan esportazioen jaitsieragatik eta inportazioen igoera txiki batengatik gertatu zen, eta lehen hiruhilekoan, ordea, bi aldagaiek aldakuntza tasa positiboak eskuratu zituzten. Izan ere, ondasun eta zerbitzuen esportazioak %1,7 areagotu ziren eta inportazioak %2,1, biak prezio iraunkorretan neurtuta.

ESKARIAREN ALDAGAIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2023	2024	2024				2025
			I	II	III	IV	I
BPG erreala	2,7	2,2	2,4	2,1	2,0	2,1	2,1
Gastua azken kontsumoan	1,7	2,4	2,2	2,3	2,4	2,5	2,4
- Familien gastua kontsumoan	1,9	2,4	2,1	2,3	2,4	2,5	2,6
- Adminis. gastua kontsumoan	1,3	2,3	2,4	2,3	2,3	2,3	2,0
Kapital eraketa gordina	1,8	2,1	2,3	1,7	2,0	2,3	2,2
- Ekipamendu ondasunak	3,1	2,3	2,6	1,8	2,2	2,6	3,0
- Gainontzeko inbertsioa	1,0	1,9	2,1	1,6	1,9	2,1	1,7
Barne eskaria	1,8	2,3	2,2	2,2	2,3	2,4	2,4
Esportazioak	1,0	0,1	-3,4	2,1	2,0	-0,3	1,7
Inportazioak	-0,2	0,3	-3,5	2,2	2,4	0,2	2,1

Iturria: Eustat.

Lehen hiruhilekoan ez zen alde handirik egon barne eskariaren bi osagai nagusien erritmoen artean, eta horrek egonkortasuna ematen dio hazkunderari, agregatu baten edo bestearen bilakaeraren mende ez egotearen zentzuan. Gainera, lehen hiruhilekoan erregistratutako tasak osagai bakoitzak 2024 osoan lortu zituen ia berberak dira, eta, beraz, egonkortasuna indartzen da denboraren ikuspegitik ere.

Azken kontsumoan eginiko gastuak %2,4ko tasa jaso zuen, aurreko aldian baino hamarren bat gutxiago, baina 2024ko batez besteko tasa bera. Familien kontsumoak hazkunde erritmoaren bizkortzeko irudia ematen du, 2024ko lehen hiruhilekoan izan zuen %2,1etik aurtengo hiruhileko

bereko %2,6ra. Kontsumo pribatuaren azelerazio hori lan merkatuaren bilakaera onean oinarritzen da, enplegu garbiaren sorrera nabarmenarekin, eta inflazioaren hazkunde gero eta apalagoan ere, zeinak erosteko ahalmena berreskuratzea ahalbidetzen duen. Soldaten eta pentsioen igoerek eta interes tasen jaitsierak ere azaltzen dute familien errenta erabilgarriaren igoera. Beste aldetik, administrazio publikoen kontsumo gastua %2,0 areagotu zen, hiru hilekoak igaro ahala moteltzeko profil leuna erakutsiz.

KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak							
	2023	2024	2024				2025
			I	II	III	IV	I
Kontsumoa							
Azalera eta kate handietako salmentak	0,9	0,6	0,0	-1,1	2,7	0,9	-0,4
Txikizkako merkataritza indizea	3,2	3,0	1,8	1,3	4,8	4,1	2,5
Kontsumo ondasunen ekoizpena	1,1	-0,8	1,4	-2,3	-0,5	-1,8	1,5
Kontsumo ondasunen inportazioa	1,0	-4,0	-16,2	-6,3	1,6	7,0	15,0
Turismoen matrikulazioa	5,9	5,9	2,7	0,5	15,1	6,9	8,5
Inbertsioa							
Ekipo ondasunen ekoizpena	4,0	-1,4	-0,4	-0,8	-1,8	-2,4	1,1
Ekipo ondasunen inportazioa	10,5	-0,6	-12,1	2,3	4,2	4,5	12,3
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	15,0	0,1	14,5	0,4	1,1	-13,1	-0,1
Etxebizitza berriak eraikitzeko oniritziak	-17,4	-1,0	12,0	-29,0	-0,8	15,7	-27,6
Lizitazio ofiziala	-28,3	51,5	17,8	39,1	-15,7	183,6	40,7

Iturria: Ekonomia Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Barne eskariaren beste osagai nagusia, hots, kapital eraketa gordina, %2,2 hazi zen lehen hiru hilekoan, gutxi gorabehera aurreko hiru hilekoko tasa bera eta 2024ko batez bestekoa. Oraingoz, Europako produktuei muga zerga handiagoak ezarri izanak eragindako ziurgabetasunak ez du eraginik izan lehen hiru hilekoan, baina bigarrenean eragin lezake, baldin eta ezartzen direla baieztatzen bada. Kontu ekonomikoen zenbatespenak adierazten du ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioak bizkortu egin zuela bere hazkundera, %3,0ko urte arteko tasaraino, aurreko balioen oso gaineratik. Beste aldetik, gainerako inbertsioak, eraikuntzan eta ukiezinetan egindakoak barne baitaude, hainbat hamarren moteldu zuen bere igoera erritmoa, %1,7an kokatu arte, 2024ko batez bestekoa baino pare bat hamarren gutxiago

soilik, eta eraikuntzaren balio erantsiaren hazkundearen ildotik, zeina, lehen adierazi den bezala, %1,6 izan baitzen.

Muga zergen mehatxuak eragina izan zezakeen kanpo merkataritzan, erosketak aurreratzeari dagokionez, muga zergen igoera indarrean sartu ondoren produktuek izango duten garestitzea saihesteko. Kontu ekonomikoen arabera, aurreko aldian behera egin ondoren, %1,7 gehitu ziren kanpora (Estatuko gainerako lurraldeetara eta atzerrira) bidalitako ondasun eta zerbitzuen esportazioak; inportazioak, berriz, %2,1 igo ziren, bi magnitudeak termino iraunkorretan neurtuta. Aldakuntza tasa horien ondoriozko zenbatekoak 17.257 milioi eurokoak dira lehenengoentzat eta 17.546 milioi eurokoak azkenentzat. Bi zifren arteko aldea 290 milioi eurokoa baino ez da, saldo negatibo erlatiboki txikia aipatutako zenbatekoak kontuan hartuta.

Esportazio horien guztien zati handi bat atzerrira bideratutako ondasunen salmentak izan ziren (zerbitzurik gabe), 7.646 milioi euro guztira, Eustatek argitaratutako datuen arabera. Kopuru hori urtebete lehenago lortutakoa baino %1,6 handiagoa da, eta aurreko bi hiruhilekoetako emaitza eskasak geldiarazten ditu, 2024ko laugarren hiruhilekoan %5,5eko jaitsiera nabarmena izan baitzuten. Bestalde, atzeritik ekarritako ondasunen inportazioak 6.893 milioi eurokoak izan ziren, aurreko urtean baino %5,9 gehiago.

Lehen hiruhilekoko esportazioen hazkundera produktu ez-energetikoen salmentan soilik kontzentratu zen, %5,1eko igoera esanguratsua eskuratu baitzuen, hainbat hiruhilekotan beherakada txikiak izan ondoren. Zeinu aldaketa 2024an eta 2025ean hiruhileko desberdinetan egin den Aste Santuaren ondorioarekin lotuta dago, baita muga zergen mehatxuarekin ere, enpresei ondasunen erosketak aurreratzeko pizgarria eman baitie, horrek dakarren prezioen igoera saihesteko, eta, beraz, bigarren hiruhilekoan kontrako eragina gerta liteke, eta salmentak murriztu. Produktu energetikoei dagokienez, lehen hiruhilekoan esportazioen jaitsiera %47,7koa izan zen, aurreko aldiko tasaren antzekoa.

Produktu taldeen arabera azterketak adierazten du EAEko industriaren ekoizpen egiturari pisu handiena duten hiru ataletan urte arteko hazkunde aipagarriak izan zirela. Garraio materialarekin hasita, 2.204 milioi euroko salmentak biltzen baititu, urte arteko igoera %7,0 izan zen, 2024an %10etik gorako jaitsiera metatu ondoren. Makinek eta aparatuek %10,7ko hazkundera lortu zuten, joan den urte osoan lortutako emaitza onei jarraipena emanez. Metal arruntek eta horien manufakturrek, berriz, %3,7ko tasa jaso zuten. Hiru ondasun talde horiei nekazaritza produktuak gehitu behar zaizkie, hazkunde tasa nabarmena (%13,0) eskuratu baitute. Kontrako norabidean, pisu txikieneko atalek urte arteko jaitsierak izan zituzten, eta horien artean plastikoak eta kautxua nabarmentzen dira (-%9,0).

ESPORTAZIOAK PRODUKTUEN ARABERA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2023	2024	2024			2025	
			II	III	IV	I	I
TOTAL	0,1	-5,1	2,0	0,7	-5,5	1,6	7.646.044
GUZTIRA	-31,0	-1,4	112,6	23,8	-57,3	-47,7	264.408
Ez-energetikoak	3,6	-5,4	-2,0	-0,7	-0,2	5,1	7.381.636
Nekazaritzakoak	2,5	-21,2	-15,5	-17,3	-1,2	13,0	454.232
Kimikoak	-11,1	-7,1	1,9	-2,1	-15,0	-20,3	224.455
Plastikoak eta kautxua	6,4	-19,9	-17,8	-24,9	-18,1	-9,0	473.082
Papera	-17,2	4,1	7,8	26,5	1,3	-3,6	183.224
Metal arruntak	-13,2	-2,9	-3,6	6,7	10,9	3,7	1.634.185
Makinak eta aparatuak	8,6	11,6	18,1	14,2	15,6	10,7	1.673.393
Garraio materiala	18,9	-10,7	-8,1	-8,9	-7,6	7,0	2.204.493
Gainontzekoak	3,3	-9,5	-2,4	0,4	-18,2	10,8	534.570

Iturria: Eustat.

Esportazioen helburu geografikoak erakusten duenez, EAEko enpresek ohiko merkatuen orde. Ahulezia handia erakusten baitute, beste merkatu batzuk bilatzen jarraitzen dute. Hala, garatzeko bidean dauden herrialdeetara zuzendutako esportazioak %24,0 handitu ziren, eta ELGAN sartutako herrialde garatueta bidalitakoak, ordea, %2,0 murriztu ziren, eta 2024 osoan izandako jaitsierari (-%6,4) jarraipena eman diote. Hala eta guztiz ere, esportazio gehienak herrialde garatueta bidaltzen dira oraindik ere, guztizkoaren %83,2 biltzen baitute, euroaren eremuaren pisu nabarmenarekin (guztizkoaren %52,8).

Euroaren eremura bideratutako esportazioak %3,7 murriztu ziren urte batetik bestera, neurri handi batean erregai mineralen salmentak erdira jaitsi zirelako (-%45,3), baina pisu handieneko ondasun taldeek ere ez zuten portaera positiborik izan. Horrela, garraio materialak urte arteko %1,6ko jaitsiera izan zuen, eta bost hiruhilekotan jarraian salmentek behera egin zuten. Lehen hiruhilekotan, trenbideetako ibilgailuen atala izan zen jaitsieraren erantzulea, ez baitzen iritsi aurreko urteko salmenta bolumen handira, eta ibilgailu automobilak (%0,3) ia 2024ko zifraren parean geratu ziren. Aitzitik, salmentak ondo joan ziren pisua duten hurrengo bi taldeetan. Zehazki, metal arruntak %1,1 igo ziren eta makinak eta aparatuak %5,1. Positiboan ere, baina aipatutako taldeena baino askoz pisu txikiagoarekin, nekazaritzako produktuak esportazioak %12,4 egin zuen gora, hainbat aldiz behera egin ondoren. Gainerako taldeek, pisu txikiagoarekin guztiek, jaitsierak izan zituzten esportazioetan.

ESPORTAZIOEN HELMUGA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2023	2024	2024			2025	
			II	III	IV	I	I
GUZTIRA	0,1	-5,1	2,0	0,7	-5,5	1,6	7.646.044
ELGA	1,2	-6,4	1,6	-0,6	-8,5	-2,0	6.359.197
Eurogunea	-3,6	-6,5	-1,5	1,0	-8,4	-3,7	4.038.962
Alemania	2,9	-13,0	-15,2	-14,2	-0,7	1,0	1.134.034
Frantzia	-2,3	-0,4	5,8	7,3	-10,2	-10,0	1.196.567
Italia	4,9	-1,5	19,3	-8,1	-7,9	-0,2	467.161
Erresuma Batua	2,9	6,0	26,7	9,9	6,6	-2,7	493.244
AEB	20,1	-27,2	-8,0	-17,6	-41,4	-9,5	449.640
ELGAtik kanpokoak	-6,1	2,3	4,6	7,6	11,8	24,0	1.286.847

Iturria: Eustat.

EAEko produktuen atzerrirako lehen helmuga izateko lehian, Frantzia geratu zen berriro lehen postuan, baina bere ibilbidea goitik behera joan zen, eta Alemaniakoa, berriz, kontrako norabidean mugitu zen. Izan ere, 2024an Frantziarako esportazioak (-%0,4) ia ez ziren ezer aldatu, baina bai laugarren hiruhilekoan (-%10,2), bai urte honen hasieran (-%10,0) jaitsiera handiak jaso dira. Jaitsiera handia batez ere erregai mineraletan kontzentratzen da, 2024an aparteko salmenta izan baitzuten, aurtan errepikatu ez dena. Atal hori kenduta, Frantziako merkaturako esportazioak pixka bat hazi ziren (%1,7), metalei eta makineriari esker.

Alemaniarako esportazioek jaitsiera geldiarazi zuten 2024an, eta igoera txiki bat lortu zuten (%1,0) aurtengo urtearen hasieran. EAEko enpresek merkatu horretan saltzen duten guztiaren ia erdia garraio -materialaren atalean dago sailkatuta eta %2,8ko hazkundera lortu zuen, ondoz ondoko lau hiruhilekotan murriztu ondoren. Makinek eta aparatuek ere emaitza positiboa izan zuten (%10,4), baina metalen eta plastikoaren jaitsierek partzialki konpentsatu zuten emaitza hori (biak -%15,0).

Italiak ia emaitza laua lortu zuen hiruhilekoan (-%0,2), erregai mineralen salmentarik ezaren ondorioz, iazko 7,9 milioi eurotik aurtengo 0,3 milioi eurora igaro baitzen. Gainerako produktuetan, bilakaera positiboagoa izan zen. Nabarmentzekoa da metal arrunten (%11,4) eta garraio-materialaren (%1,8) hazkundera, merkatu horretarako esportazioen egituren pisu handiena duten bi taldeak.

Eurogunekoak ez diren herrialde garatuek ere ez zuten bilakaera positiborik izan lehen hiruhilekoan. Erresuma Batuen kasuan, esportazioen urte arteko jaitsiera %2,7 izan zen, 2024an erregai mineralen salmenta esanguratsuak ere baldintzatuta, 2025ean ez baitzuen jarraipenik izan. Aitzitik, energiaz bestelako ondasunen esportazioak %9,6 egin zuen hobera, hiru produktu talde nagusiek, hau da, metalek, garraio materialak eta makineriak, salmentak handitu zituztelako.

Antzeko zerbait gertatu zen AEBetako merkatuarekin, zeinak emaitza negatiboa izan baitzuen hiruhilekoan (-%9,5), 2024ko salmenta onek baldintzatuta, aurten ez baitira errepikatu. Zehatz-mehatz adierazita, erregaietan 32,6 milioi euro eta produktu kimikoetan 74,6 milioi saltzetik erregaietan ezer ez eta kimikoetan 6,7 milioi euro bakarrik saltzera pasatu da, bi kasuetan %90etik gorako jaitsierekin. Metalek eta makineriak, aldiz, %20tik gorako urte arteko hazkundeak eskuratu zituzten, eta horiek dira herrialde horretarako salmenta egituren pisu handiena duten bi aparatuek.

Txanponaren ifrentzua garapen bidean dauden herrialdeetara bidalitako esportazioetan gertatu zen, EAEko produktuen %24,0 gehiago jaso baitzuten. Bitxikeria gisa, adierazi beharra dago erregaien esportazioa zazpi aldiz biderkatu zela, nahiz eta kopuru nahiko txikiak diren (47 milioi euro) saldutako guztizkoarekin alderatuta (1.287 milioi euro). Makinen eta aparatuen esportazioa eta garraio materialarena dira bi atal nagusiak, eta biek urte arteko hazkunde nabarmenak lortu zituzten (%11,3 eta %40,6, hurrenez hurren), baita metalek (%12,0) eta nekazaritza produktuek ere (%58,0).

Txinara zuzendutako esportazioak %8,2 murriztu ziren lehen hiruhilekoan eta guztira 161,9 milioi euro saldu ziren. Asiako erraldoiarekiko harreman komertziala, bereziki, makineria eta garraio materialaren salmentan oinarritzen da, herrialde horretara bideratutako guztiaren %81 biltzen baitute. Bi ataletako batek ere ez zuen emaitza esanguratsurik izan, makineriak %1,8 egin baitzuen hobera eta garraio materialak, ordea, %1,2 egin baitzuen okerrera. Beraz, emaitza globala beste osagaien bilakaerak baldintzatu zuen, horien artean metalak eta haien enbaldurak, 2024ko zifraren erdia baino ez baitzuten saldu.

Ondasunen inportazioei dagokienez, %5,9 igo ziren aurtengo lehen hiruhilekoan, 6.893 milioi eurora iritsi arte. Emaitza positiboa energiaz bestelako ondasunen erosketak lortu zuen, %12,8 hazi baitzen, eta erregaien balioa, berriz, %12,0 jaitsi zen. Oro har, talde ez-energetiko guztien inportazioak handitu ziren, baina merezi du pisu handiena dutenen datuak aipatzea. Horrela, metal arrunten erosketak %16,1 hazi zen eta makinena eta aparatuenak %3,9. Hazkundearen intentsitateagatik nabarmentzen dira garraio materialaren inportazioa (%39,6), ibilgailu automobilak (%42,1) eta trenbideetako ibilgailuak (%27,1).

Inportazioen jatorri geografikoaren araberako analisiak iradokitzen du euroaren eremuaren barruko merkataritza harremanean sakondu dela, beste herrialde garatu batzuen kaltetan. Hain zuzen ere, euroaren eremutik ekarritako inportazioen balioa %6,0 handitu zen, eta Erresuma Batutik eta AEBetatik bidalitakoa, berriz, %9,9 eta %27,9 murriztu zen, hurrenez hurren. Bi kasuetan, erregai mineralen erosketa izugarri murriztu zen, eta horrek baldintzatu zuen azken emaitza. AEBetako ekonomiaren kasuan, ia erdira murriztu zen nekazaritzako produktuen erosketa, nahiz eta garraio materialaren igoera nabarmenarekin konpentsatu zen. Garapen bidean dauden herrialdeetatik ekarritako inportazioak %19,0 hazi ziren, eta igoera handiak izan zituzten produktu talde guztietan. Hala eta guztiz ere, erosketen ia erdia erregai mineralak izan ziren.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2023	2024	2024			2025	
			II	III	IV	I	I
GUZTIRA	-9,2	0,9	3,3	2,6	7,4	5,9	6.892.606
ELGA	-3,2	-1,9	-7,8	1,5	11,6	0,3	4.554.978
Eurogunea	0,3	-0,9	-3,0	6,4	2,5	6,0	3.120.909
Alemania	5,7	1,1	-3,9	10,8	7,7	12,3	1.072.925
Frantzia	-17,2	0,2	1,8	13,3	-0,3	7,3	579.369
Italia	-1,1	-1,9	-0,5	-9,9	4,4	-8,5	316.827
Erresuma Batua	-41,5	13,5	10,0	58,4	7,0	-9,9	140.032
AEB	-15,9	-13,5	-27,5	-38,7	18,0	-27,9	369.202
ELGAtik kanpokoak	20,0	7,0	30,2	5,0	-0,6	19,0	2.337.628

Iturria: Eustat.

Esportazioen eta inportazioen konbinazioak 753 milioi euroko merkataritza saldoa utzi zuen atzerriarekin, Euskadiren aldekoa. Emaitza hori ondasun ez-energetikoetan 2.074 milioi euroko superabitarekin lortzen da, eta defizit energetikoa 1.321 milioi eurora iristen da. Ohi bezala, EAEko ekonomiak saldo positiboa lortzen du herrialde garatuen multzoarekin, eta negatiboa, berriz, garapen bidean dauden herrialdeekin. Lehenengo kasuan 1.804 milioi eurora iritsi zen eta bigarrenean defizita 1.051 milioi eurokoa izan zen. Herrialdeka, nabarmentzekoa da Frantziarekiko harreman komertzialetan lortzen den superabit handia (617 milioi), Alemaniarekiko merkataritzan dagoen berdintasunarekin kontrastean dagoena (61 milioi). Beste saldo positibo garrantzitsu bat Erresuma Batuarekin lortzen dena da (353 milioi euro).

Prezioak, soldatak eta kostuak

Prezioen bilakaera aztertzeo aukera ematen duten adierazleek, oro har, beheranzko ibilbidea erakusten dute. Hala, barne produktu gordinaren deflatorea 2024an, urteko batez bestekoan, erregistratu zuen %2,8tik %2,4ra apaldu zen 2025eko lehen hiruhilekoan. Tasa horiek gero eta gertuago daude %2ko helburutik, eta 2021eko hirugarren hiruhilekotik oraintsu arte erregistratutako balio nabarmen altuenetatik urrundu dira. 2025eko lehen hiruhilekoan hauteman den beheranzko bilakaera orokor hori gorabehera, azpimarratzekoa da kontsumoaren deflatorearen portaera, ez baitu behera egiteko pausurik eman: 2024ko %3,0tik 2025eko lehen hiruhilekoko %2,9ra igaro da, eta aldaketa gutxi izan dira kontsumo pribatuari (%3,2) eta publikoari (%2,0) dagozkien deflatoreetan. Hainbat produkturi aplikatutako BEZ moten aldaketak eta barne eskari handia mantentzea dira bilakaera horren atzean dauden arrazoietakoz batzuk.

Kontsumoko prezioei dagokienez, KPlaren bilakaera gorantz joan zen 2024ko azken hilabeteetan, eta urte arteko %3,6ko tasa erregistratu zen abenduan, erregaiei eta pakete turistikoien garestitzeagatik. Ordutik aurrera, moteltzeko joera etengabea izan da, eta maiatzean, datuak eskura ditugun azken hilabeteen, indizea %2,4an kokatu zen, %2,0ko helburutik gero eta gertuago.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak						
	2023	2024	2024	2025		Ekarpena
			IV	I	Maiatza	
Inflazio osoa (%100)	3,6	3,1	2,9	3,2	2,4	2,4
Azpiko inflazioa (%84,8)	6,2	3,2	3,0	2,6	2,5	2,1
- Elikagai landuak (%14,8)	12,5	4,6	4,2	2,6	1,3	0,2
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	1,2	1,0	1,2	1,2	0,2
- Zerbitzuak (%49,8)	4,3	3,5	3,4	3,2	3,5	1,7
Hondar inflazioa (%15,2)	-6,4	2,6	2,5	6,5	1,8	0,3
- Landu gabeko elikagaiak (%6,4)	7,3	4,0	2,0	5,6	7,2	0,5
- Energia (%8,8)	-17,0	1,0	2,8	7,3	-1,9	-0,2

Iturria: INE.

Faktore energetikoen (Brent motako petrolio upelaren prezioaren igoera) eta fiskalen (hainbat produkturen BEZaren murrizketen amaiera) konbinazioa, neurri handi batean 2024aren amaieran EAEn inflazioak izan zuen gorakada azaltzen duena, arintzen joan da hurrengo hilabeteetan. Hala, erregaiak, urtea igoera txikiekin hasi zutenak, merkatu egin dira Brent petrolio upelaren etengabeko jaitsieraren ondorioz, urtarileko 76,76 dolarretatik maiatzeko 62,78 dolarretara igaro baita. LPEEko kideek erabakitako ekoizpen igoerek eta eskari txikiagoaren itxaropenak lagundu dute jaitsiera horretan, nahiz eta ekainean zeinua aldatzen ari da, Ekialde Ertainean bizi den tentsioak gora egin duelako (ekainaren amaieran 77 dolarren inguruan kokatu zen berriro une batean). Erregaien jaitsiera horiek urte hasierako BEZaren igoerak konpentsatu dituzte, eta inflazio orokorra aipatutako maiatzeko %2,4ra arte modu iraunkorrean moteltzea ahalbidetu dute.

EAEn gertatu den bezala, Europako prezioek ere gora egin zuten 2024ko azken hilabeteetan eta 2025eko lehenengoetan. Hain zuzen ere, pasa den irailean kontsumoko prezioek %1,7ko tasa ezarri zuten, azken hiru urteetako tasarik txikiena. Hortik aurrera, inflazioa bizkortzen hasi zen 2025eko urtarileko %2,5era arte, baina ondorengo hilabeteetan, energiaren merkatzeari eta industria ondasunen prezioen apaltze handiari esker, inflazioa %1,9ra itzuli da. Beheranzko bilakaera horri esker, EBZk interes tasan murrizketak egin ahal izan ditu euroguneko ekonomia suspertzeko.

Bestalde, adierazi behar da EAEko azpiko inflazioak %3,0 inguruko bilakaera egonkorra izan zuela ia 2024 urte osoan, eta nolabaiteko moteltzeko joera erakutsi zuela hornidura kateak eta aurreko inflazio pikoak normalizatu ahala. Urte amaieran gorakada izan ondoren, 2025eko lehen hiruhilekoan apaltzeko joera leuna hasi zuen, %2,6an kokatu arte, eta maiatzean beste pausobat eman zuen, %2,5eraino, inflazio orokorretik oso gertu. Bilakaera horretan funtsezkoak izan dira prestatutako elikagaien prezioen moderazioa, maiatza %1,3ko igoerarekin amaitu baitute. Industria ondasunek ere lagundu dute azpiko inflazioa kontrolatzen, eta tinko eutsi diote, %1,0 inguruan.

Hondar inflazioari dagokionez, 2024a %2,6an amaitu ondoren, %8,1era iritsi zen aurtengo otsailean, baina azkar apaldu zen gero, maiatzean %1,8an kokatu arte. Adierazle horren bi osagaiak, hau da, energia eta prestatu gabeko elikagaiak, gorakada handiekin hasi ziren 2025ean, hainbat faktoreren ondorioz, hala nola BEZ murriztua kentzea, klima baldintzatzaile batzuk eta nekazaritza kostuen igoera. Hala eta guztiz ere, osagai horien ondorengo bilakaera kontrakoa izan da. Hala, prestatu gabeko elikagaiek garestitze handiari eutsi dioten bitartean (%7,2), energiak, elektrizitatearen garestitzea moteldu eta erregaien prezioa jaitsi ondoren, lehen aipatutako petrolioaren merkatzea dela eta, 2024ko maiatzean baino %1,9 merkeago amaitu zuen maiatza, elikagai freskoen garestitzea konpentsatuz eta hondar inflazioaren igoera motelduz.

Elektrizitatearen BEZaren aldaketaren ondorioz, etxebizitza taldea oraindik ere gaur egungo inflazionistenetako bat da, maiatzean urte arteko %4,0ko tasarekin. Hala eta guztiz ere, aurtengo lehen hiruhilekoa %8,8 garestitu zela kontuan hartuta, moderaziorako joera dagoela ondoriozta daiteke. Bestalde, hautematen da zerbitzuek ez dutela bat egiten %2ko helburuarekin; izan ere, bai jatetxeek eta hotelek, bai beste ondasun eta zerbitzu batzuek prezioak garestitu zituzten maiatzean, %4,4 eta %4,0, hurrenez hurren. Edari alkoholodunak eta tabakoa ere nabarmen garestitu dira (%3,7).

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2023	2024	2024			2025	
			II	III	IV	I	Maiatza
Indize orokorra	3,6	3,1	3,6	2,5	2,9	3,2	2,4
Janariak eta alkohol gabeko edariak	11,1	4,5	5,3	3,7	3,2	3,4	2,9
Edari alkoholodunak eta tabakoa	7,0	4,3	3,8	4,1	5,2	3,9	3,7
Jantziak eta oinetakoak	2,0	1,0	0,9	1,1	0,8	1,7	1,3
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	-12,0	3,7	4,8	3,5	7,1	8,8	4,0
Etxeko hornidura	6,0	1,5	1,1	1,3	1,3	1,4	1,5
Medikuntza	2,3	2,7	2,9	2,8	2,6	2,2	2,3
Garraioa	0,3	0,9	3,2	-0,8	-0,8	0,0	-1,5
Komunikazioak	3,2	0,1	0,0	-0,2	0,1	1,8	2,1
Aisia eta kultura	4,6	2,4	2,3	1,1	3,1	1,1	-2,3
Irakaskuntza	1,9	2,3	2,2	2,2	2,6	2,3	0,1
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	6,2	4,3	4,5	3,9	3,7	4,2	4,4
Besteak	5,4	3,7	3,4	3,5	3,6	4,1	4,1

Iturria: INE.

Aitzitik, KPIa osatzen duten produktu talde batzuek moteltzeko zantzu argiak erakutsi dituzte. Kasurik nabarmenenak garraioa eta aisialdia eta kultura biltzen dituen taldea dira, aurreko urtearen aldean prezioak jaitsi baitira (-%1,5 eta -%2,3, hurrenez hurren). Bi talde horiei irakaskuntzakoa gehitu behar zaie, 2024ko maiatzarekin alderatuta prezioak ia bere horretan mantendu baitzituen, eta %0,1eko iguera baino ez baitzuen izan.

Industria prezioei dagokienez, 2021ean eta 2022an garestitzeko joera bizia erakutsi ondoren, bi urtez jarraian murriztu ziren beren prezioak. Joera hori urte honen hasieran hasi zen iraultzen, baina IPRIaren jaitsierak 2024ko bigarren erdian ere asko moteldu ziren, eta 2024ko abenduan

eta aurtengo lehen hiru hilabeteetan aldakuntza tasa positibo txikiak jaso ziren. Hala eta guztiz ere, apirilean (-%0,1) eta, bereziki, maiatzean (-%2,0) industriako prezioek behera egin zuten berriro. Produktu multzoen arabera, energiaren prezioak nabarmen jaitsi dira (-%8,9), erregaiak merkatzearen ondorioz. Ekipamenduko ondasunen prezioak ere modu esanguratsuan beheratu ziren, %1,8 kasu honetan, eta beste produktu taldeek nolabaiteko egonkortasuna erakutsi zuten aldakuntzan: bitarteko ondasunak %0,2 baino ez ziren garestitu eta kontsumoko ondasunak, berriz, %0,8 merkatu ziren.

Hitzarmen kolektiboei dagokienez, 2025eko martxoa amaitzean, EAEko langileen %47,4k indarrean zeuden lan hitzarmenak zituzten, %48,0k akordioak luzapen egoeran zuten eta %4,6k bertan behera utzitako hitzarmenak zituzten. Joan den abenduaren 31n amaitu zen enplegu bolumen handia duten hainbat sektoreko hitzarmenen ohiko indarraldia, eta, horren ondorioz, langileak eta indarrean dauden hitzarmenak duela urtebetekoak baino ia bederatzi puntu txikiagoak dira.

Zehazki, 69 hitzarmen berri sinatu ziren, 22.000 pertsona baino gehiagori eragiten dietenak, eta gaur egun 306.264 langile daude beren lan akordio eguneratuekin. Era berean, EAEko hitzarmenek soldata igoerak finkatu zituzten lehen hiruhilekoan, KPIren antzekoak (%2,75 eta %3,2, hurrenez hurren), eta, ondorioz, erosteko ahalmenaren galera txiki bat gertatu zen. Hala ere, azken hilabeteetan inflazioak moteltzeko joera izan du, eta, beraz, hitzarmenen igoera prezioen igoerarekin lerrokatuta geratzen ari da.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2021	2022	2023	2024	2025(*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	1,2	4,1	4,2	3,4	3,1
- Urtean zehar sinatutakoak	1,1	4,1	4,7	3,6	2,7
Negoziazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	1,0	3,9	4,3	3,4	2,9
- Enpresako hitzarmenak	1,9	4,7	4,1	3,2	2,3

(*)2025eko martxora arte erregistratutako hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Azkenik, lan kostuek balio moderatuak izaten jarraitzen dute, baina gorabehera nabarmenak hautematen ari dira. Izan ere, 2024ko azken hiruhilekoan inflazioaren oso azpitik igo ziren bitartean, 2025eko lehen hiruhilekoan inflazioaren gainetik igo ziren (+%0,6). Zehatz-mehatz

adierazita, langile bakoitzeko guztizko lan kostua %3,8 handitu zen aurtengo lehen hiruhilekoan. Lan kostuak osatzen dituzten osagaien artean, beste behin ere, *beste kostu batzuk* deiturikoak izan ziren gehien igo zirenak, %5,0rekin, Belaunaldien arteko Ekitate Mekanismoaren (MEI) kotizazioak pixka bat gora egin zuelako eta 2025ean soldata altuenei elkartasuneko beste kotizazio bat gehitu zitzaielako, pentsio sistemaren jasangarritasuna indartzeko. Hala eta guztiz ere, analisia lan egindako ordu bakoitzeko egiten bada, orduan kostuaren igoera %1,6 baino ez zen izan eta, beraz, inflazioaren azpitik geratu zen, zeren eta benetan lan egindako orduen kopurua %2,2 igo baita, hitzartutako orduen kopuruak baino askoz gehiago, ordu horiek ia ez baitira aldatu (%0,2).

LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2023	2024	2024				2025
			I	II	III	IV	I
Lan kostu guztiak langileko	4,5	2,3	2,2	1,9	3,6	1,8	3,8
- Soldata kostua guztira	3,7	2,3	1,9	2,5	3,7	1,2	3,4
- Bestelako kostuak	6,9	2,5	3,1	0,2	3,3	3,5	5,0
Lan kostu guztiak orduko	5,0	2,7	6,4	-0,8	3,5	1,9	1,6
- Soldata kostua guztira	4,2	2,6	6,1	-0,2	3,6	1,3	1,1
- Bestelako kostuak	7,3	2,9	7,2	-2,5	3,3	3,8	2,8
Adostutako lan orduak	0,1	-0,4	-0,3	-0,3	-0,5	-0,5	0,2
Benetan lan egindako orduak	-0,5	-0,3	-3,9	2,8	0,1	-0,1	2,2

Iturria: INE.

Arlo publikoa

2025eko lehen lau hilabeteetan, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru ogasunek aurreko urteko aldi berean baino 590 milioi euro gehiago bildu zituzten. Zehazki, %10,8ko gorakada izan zen, 6.064 milioi euro eskuratu baitziren, eta 2024an, berriz, 5.475 milioi euro. Hazkunde horren arrazoia, neurri handi batean, zeharkako zergen portaera ona da, batez ere BEZarena, bai eta PFEZaren eta finantza transakzioen gaineko zergaren diru sarreraren hazkundera ere.

TRIBUTU ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-apirila)

Mila euro

TRIBUTUAK	Diru bilketa		
	2024	2025	% Ald. 25/24
PFEZ	2.253.072	2.419.597	7,4
Sozietateen gaineko zerga	403.350	380.696	-5,6
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	43.509	69.555	59,9
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	48.196	73.496	52,5
Ondarearen gaineko zerga	3.331	5.663	70,0
Kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zerga		-3	---
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	301	16.868	---
ZUZENeko ZERGAK GUZTIRA	2.751.759	2.965.873	7,8
BEZ	2.212.096	2.513.140	13,6
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	56.090	75.773	35,1
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	12.339	13.561	9,9
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	8.784	8.223	-6,4
Estatuarekin doikuntzak dituzten zerga bereziak	462.177	497.699	7,7
Elektrizitatearen gaineko zerga berezia	8.602	23.307	170,9
Aseguru sarien gaineko zerga	40.605	42.714	5,2
Joko jardueren gaineko zergak	2.695	3.089	14,6
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	1.608	5.855	264,1
Finantza-transakzioen gaineko zerga	15.004	27.142	80,9
Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga	5.770	6.402	10,9
Zabortegetan hondakinak uztearen gaineko zerga	6.236	7.112	14,1
Iraungitako zergak	5	-0	-105,1
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	2.681.821	3.060.140	14,1
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	41.149	38.461	-6,5
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	5.474.729	6.064.474	10,8

Iturria: Foru aldundiak.

Zuzeneko zergapetzeak bilakaera positiboa izan zuen, %7,8ko hazkundearekin. Hain zuzen ere, PFEZaren bidezko diru bilketa %7,4 hazi zen aurreko urtearen aldean, lan merkatuaren dinamismoak bultzatuta, lan etekinengatiko atxikipenetan %6,1eko hazkundera izan baitzen. Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak ere nabarmentzen dira, %21,5 areagotu baitziren. Sozietateen gaineko zergak, berriz, %5,6ko beherakada izan zuen, urte hartako enpresa mozkin aparten ondorioz 2024an lortutako maila altuen ondoren.

Zeharkako zergei dagokienez, %14,1eko igoera nabarmena izan zen. BEZaren bilketak %13,6 egin zuen gora, 2025eko urtarrilean produktu batzuetarako tasa murriztuak amaitu ondoren, besteak beste elektrizitaterakoa. Ondare eskualdaketen gaineko zergaren eta finantza transakzioen gaineko zergaren portaera ere nabarmentzekoa izan zen, %35,1eko eta %80,9ko gehikuntzekin, hurrenez hurren, eta horrek erakusten du aldi horretan jarduera ekonomiko eta finantzario handiagoa izan dela.

Estatuarekin doikuntzak dituzten zerga berezien kasuan, diru bilketak ere bilakaera positiboa izan zuen 2025eko lehen bost hilabeteetan, %7,7ko hazkundearekin aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Hidrokarburoek kategoria horren zatirik handiena bereganatzen dute, eta %1,7ko jaitsiera txikia pairatu zuten, eskaera gutxitu zelako. Eskari hori konpentsatu zen tabakoaren laboreen bidezko diru sarrerak %10,6 handi zelako eta Estatuarekin egiten den doikuntza %8,4 txikiagoa izan zelako.

Azkenik, hazkunde handiak izateagatik nabarmentzen diren beste zerga berezi batzuk elektrizitatearen gaineko zerga berezia (zerga tasa igo ondoren, %170,9 gehiago bildu zuen) eta berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga (%264,1 gehiago) dira.

Arlo finantzarioa

Azken hilabeteetan ezegonkortasuna areagotu duen faktorea Trumpen Administrazioak bultzatutako muga zergen politika berpiztea izan da, Txinarekin eta Europar Batasunarekin oztupo komertzialak sartu baititu berriro, eta ziurgabetasun giroa sortu du maila globalean. Egoera horrek eragin desberdina izan du finantza merkatuetan, eta, ondorioz, euroaren balioa handitu egin da, Europako burtsek nabarmen egin dute gora, estatubatuarren ahultasunaren aurrean, eta arrisku sarien murrizketa orokorra izan da Europan.

Hala ere, asaldura horiek ez zituzten banku zentral nagusien bide orriak aldatu. Hain zuzen ere, EBZk monetaren erlaxazio zikloa areagotu zuen, apirilean eta ekainean tasak jaitsi baitziren, gordailutzeko erraztasuna %2,0ra eta finantzaketa eragiketa nagusien tasa %2,40ra iritsi arte. Erabaki hori hainbat faktoretan oinarritzen da. Alde batetik, inflazioak moteltzen jarraitu du, eta apirilean prezioak bat zetozen EBZren %2ko helburuarekin; orobat, aurreikuspenen arabera, 2025ean maila horretan jarraituko dute, eta 2026an %1,6ra jaitsiko dira. Bestalde, hazkunde ekonomikoak ahula izaten jarraitzen du, eta horrek indartu egiten du inbertsioa eta kontsumoa bultzatzeko finantzaziorako baldintzak hobetzeko beharra. Horri guztiari EBZk finantza egonkortasunarekin duen konpromisoa gehitu behar zaio, aktiboak berriro inbertitzeko

programaren jarraipenean eta bankuentzako kapital baldintza jakin batzuk aldi baterako malgutzean islatzen dena.

Aitzitik, Erreserba Federalak bere erreferentzia tasa %4,25-%4,50eko tartean mantentzea erabaki zuen, eta 2024ko irailean hasitako murrizketen zikloa eten zuen. Geldialdi horrek erakusten du jarrera zuhurragoa dagoela inflazio presioen iraunkortasunaren aurrean, batez ere Trumpen Administrazioak muga zergak berriro ezarri ondoren. Fedek adierazi du nahiago duela neurri horiek prezioetan eta jardueran duten eragin osoa ebaluatu arte itxaron, erabaki berriak hartu aurretik. Gainera, inflazioaren %2,0ko helburuarekin duen konpromisoa berretsi du, eta azpimarratu du ez duela zalantzarik izango politika murriztaile bati eusteko, baldintzek hala eskatzen badute.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (I)

	2023	2024	2025					
			Urt.	Otsaila	Mart.	Apir.	Mai.	Ekaina(*)
Interes tasa ofizialak (%)								
Europako Banku Zentr.(*)	4,0	3,0	3,0	2,75	2,5	2,25	2,25	2,00
Erreserba Federala	5,25-5,5	4,25-4,5	4,25-4,5	4,25-4,5	4,25-4,5	4,25-4,5	4,25-4,5	4,25-4,5
Japoniako Bankua	-0,10	0,25	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
Ingalaterrako Bankua	5,25	4,75	4,75	4,5	4,5	4,5	4,25	4,25
Txinako Banku Popular	3,45	3,10	3,10	3,10	3,10	3,10	3,0	3,0
Brasilgo Banku Zentrala	11,75	12,25	13,25	13,25	14,25	14,25	14,75	14,75
10 urteko zor publikoaren errentagarritasuna								
Alemania	0	0	0	0	0	0	0	0
Espainia	97	70	66	69	61	67	59	69
Grezia	105	84	86	85	78	87	74	76
Erresuma Batua	76	48	51	53	52	56	48	50
Italia	168	116	109	108	111	112	97	96
AEB	184	219	208	181	148	173	189	188

(*) Gordailu tasa. (**) Ekainaren 18ko datuak

Iturria: Espainiako Bankua.

Bestalde, Ingalaterrako Bankuak, hazkunde ahuleko hainbat hiruilekoren eta moteltzen hasi den inflazioaren ondoren, bere interes tasa %4,25eraino murriztea erabaki zuen maiatzean.

Neurri horrekin, EBZren antzeko bideari jarraitu zion, Erresuma Batuko ekonomia suspertzeko ahaleaginean. Bestalde, Japoniako Bankuak bere tasa %0,50ean mantendu zuen, eta inflazioa helburuaren gainetik sendotuz gero politika gogortzen jarraitzeko prest zegoela berretsi zuen. Izan ere, analistek beste igoera bat aurreikusten dute hirugarren hiruhilekoan. Azaleratzen ari diren ekonomietan, azkenik, egoera desberdinagoa izan zen. Brasilgo Banku Zentralak moneta politika gogortu zuen, eta bere erreferentzia tasa %14,75era igo zuen, inflazioak gora egin zuelako eta Brasilgo errearen gainean presioa egin zuelako. Mexikon, berriz, banku zentralak erlaxazio zikloarekin jarraitu zuen, eta bere tasa %8,5era jaitsi zuen maiatzean.

Desberdintasun horiek errealtate makroekonomiko desberdinak ez ezik, politika monetarioaren kudeaketan ikuspegi desberdinak ere islatzen dituzte. EBZk ekonomia ahuldu bat suspertzeko nahian hedapen neurriak aukeratzen dituen bitartean, Erreserba Federalak jarrera zuhurragoa erakutsi du, inflazioaren presio posibleei eustean zentratuta. Ikuspegi desberdin horiek ageriko ondorioak eragin dituzte finantza merkatuetan, batez ere truke tasetan eta bonu subiranoen bilakaeran.

Horiek horrela, bonu subiranoen bilakaera, testuinguru geopolitikoaz gain, zerga eta moneta politikei buruzko igurikimenek markatu dute European. Alemanian, 10 urterako bonuak %2,93ko maximoa lortu zuen martxoan, malgutasun fiskal handiagoarekin finantzatzutako gastu publikoko plan bat iragarri ondoren. Ordutik, errentagarritasuna %2,52ra jaitsi zen ekainean. Espainian, 10 urterako bonuak ere goia jo zuen martxoan (%3,57), eta pixkanaka behera egin zuen (%3,0 inguru ekainean). Beherakada horrek Alemaniarekiko arrisku saria murrizten lagundu zuen, 73 oinarritzko puntu izatetik 58 oinarritzko puntu izatera igaro baitzen otsailean, Espainiako arriskuaren pertzepzioa hobetuz. Hala ere, gobernuari eragiten dioten ustelkeria eskandaluek kezka eragin zuten merkatuetan, eta arrisku saria berriro ere oinarritzko 70 puntu ingurura igo zuten. Europako gainerako periferietan, joera antzekoa izan zen. Italian, 10 urterako bonuaren errentagarritasuna %3,65ekoa izan zen otsailean, eta %3,48koa ekainean; arrisku saria, berriz, 125 puntutik 96 puntura jaitsi zen. Portugalen, arrisku saria 77 puntutik 50 puntura jaitsi zen, eta periferiako jaulkitzaile egonkorrenetako bat da.

AEBetan, azkenik, 10 urterako bonuaren errentagarritasuna %4,18aren eta %4,59aren artekoa izan zen, eta martxoan lortu zuen punturik altuena, inflazio iraunkorreko eta gastu militarren igoerako testuinguruan. Ekainaren erdialdean, errentagarritasuna oraindik ere %4,46 zen, prezioen erresistentzia eta Trumpen Administrazioaren politiken ondoriozko ziurgabetasun fiskala islatuz.

Dibisen merkatuetan, martxotik ekainera bitartean, euroak nabarmen egin zuen gora AEBko dolarren aldean: euro bakoitzeko 1,04 dolarreko truke tasa izatetik 1,15 dolarrekoa izatera igaro zen ekainaren erdialdean. Bilakaera horrek %10,6 baino gehiagoko errebalorizazioa dakar

lau hilabete eskasetan, eta diru bakarraren susperraldia sendotzen du, 2024aren amaieran izandako balio galera handiaren ondoren. Euroaren indartze hori hainbat faktorek azaltzen dute. Lehenik eta behin, adierazle ekonomikoen hobekuntza eurogunean, batez ere Alemanian eta Frantzia, nazioarteko inbertitzaileen konfiantza indartu baitu. Bigarrenik, EBZren hedapen biraketa, %2,0rainoko ondoz ondoko tasa murrizketekin, egonkortasunaren eta hazkundearekiko konpromisoaren seinale gisa interpretatu dena, eta eurotan izendatutako aktiboetarantz doazen kapital fluxuei mesede egin diena.

Aitzitik, AEBetan, bertako administrazioaren merkataritza politikak ziurgabetasuna ekarri du hazkunderari eta inflazioari buruz, dolarra ahulduz. Gainera, Erreserba Federalak tasen murrizketak eten izanak eta kontsumoari eta enpleguari buruzko datuen seinale mistoek arrisku makroekonomiko handiagoa hautematen lagundu dute.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (II)

	2023	2024	2025					
			Urt.	Otsaila	Mart.	Apir.	Mai.	Eka (*)
Truke tasak								
Dolarra/euro	1,082	1,082	1,035	1,041	1,081	1,121	1,128	1,151
Yena/euro	151,9	163,8	161,9	158,1	161,2	161,7	163,2	166,7
Libera esterlina/euro	0,871	0,847	0,839	0,831	0,837	0,854	0,843	0,855
€ efektibo nomin.(%)	98,2	98,4	96,7	96,3	98,3	100,5	100,2	100,9
Burtsa indizeak (*)								
IBEX35	22,8	14,8	6,7	15,1	13,3	14,6	22,1	20,1
Eurostoxx-50	19,2	10,8	8,6	12,3	7,9	6,0	10,2	8,2
Dow Jones	13,7	12,9	4,7	3,0	-1,3	-4,4	-0,6	-0,8
Nikkei 225	28,2	19,2	-0,7	-6,9	-10,7	-10,2	-5,4	-2,5
Standard & Poors 500	24,2	23,3	2,7	1,2	-4,6	-5,3	0,5	1,7

(*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilearen azken egunera arte. (**) Ekainaren 18ko datuak.

Iturria: Espainiako Bankua eta Expansi3n.

Japoniako yenaren aldean ere, euroak balioa irabazi du, euro baten truke 160,9 yen ordaintzetik 166,7 pagatzera igaro baita. Balio irabazi hori neurritsuagoa izan da, baina Japoniako ekonomiaren egiturazko ahultasuna eta Japoniako Bankuaren moneta politika oraindik oso laxoa islatzen du. Libera esterlinari dagokionez, euroak goranzko joerari eutsi dio, Britainia Handiko hazkundearen moteltzeak eta Ingalaterrako Bankuak tasetan murrizketa berriak

egiteko igurikimenek lagunduta. Oro har, euroaren truke tasa efektibo nominala %100,0tik gora igo da, EBZren azken datuen arabera, eta horrek dibisen saski haztatu baten aurrean duen posizioa orokorrean hobetzen duela adierazten du. Bilakaera horrek eragin positiboak izan ditu inportatutako inflazioan, eta energiaren eta lehengaien prezioen gainera presioak arintzen lagundu du.

Burtsa merkatuen bilakaerari dagokionez, eskualdeen artean bilakaera dibergentea hauteman zen. Europara ere iritsi zen muga zergen igoerak sortutako hedapen uhina, baina kontinente zaharreko jaitsierak mugatuak eta puntualak izan ziren, eta indizeek azkar egin zuten berriro gora. Izan ere, ekainaren erdialdean indize nagusiek gorakada esanguratsuak eskuratu zituzten. Hain zuzen ere, IBEX-35 indizeak %20,1eko irabaziak lortu zituen, barne kontsumoaren susperraldiak eta banku sektorearen portaera onak bultzatuta. Alemaniako DAXek %17tik gorako errebalorizazioa metatu zuen, azpiegiturretan eta defentsan egindako gastu publikoaren gorakadak lagunduta; Frantziako CAC-40ak, berriz, portaera neurritsuagoa izan zuen, %3,7 inguruko igoerarekin.

Europako portaera positibo hori hainbat faktorek azaltzen dute: aurreikuspen makroekonomikoen hobekuntzak eta banku eta defentsa bezalako sektoreek duten pisu erlatibo handiagoak, tasa baxuagoen inguruneak eta gastu militarren igoerak mesede egin baitiete. Halaber, EBZren moneta politika egokitzailagoak finantza baldintzak hobetzen eta kapital fluxuak Europako errenta aldakorrera erakartzen lagundu du.

Aitzitik, AEBetako burtsek portaera ahulagoa erakutsi zuten. Izan ere, S&P 500 indizeak ozta-ozta lortu zuen %2,0ko irabazirik, eta Dow Jonesek, berriz, %0,8ko galerak metatu zituen. Zenbateko horiek erakusten dute AEBko administrazio berriak ezarritako muga zergen eragin negatiboa, enpresa marjinei eragin baitiete, batez ere teknologia eta kontsumo sektoreei. Gainera, zerga eta diru politikari buruzko ziurgabetasunak zuhurtzia areagotu du inbertitzaileen artean.

Gorabidean dauden merkatuetan, bilakaera oso desberdina izan zen. Latinoamerikan, Argentinako MERVAllek %19tik gorako galerak ditu metatuta, ezegonkortasun makroekonomikoak eta pesoaren balio galerak eraginda. Aldiz, Brasilgo IBOVESPAk %15,3ko balio handitzea lortu du, energiaren sektoreak eta atzerriko kapitalaren sarrerak bultzatuta. Asian, Nikkei indizeak %2,5eko zuzenketa izan zuen, sektore teknologikoarekiko esposizio handiagatik, bereziki berriki izandako tentsio komertzialek eta muga zergen politiken gogortzeak eraginda.

Martxotik ekainera bitartean, 12 hilabeterako Euriborrak beheranzko joera nabarmenagoa izan zuen, apirilean eta ekainean EBZk tasen jaitsiera berriak espero zituelako. Jaitsiera horrek erakusten du euroaren eremuko desinflazio prozesua sendotu egin dela, eta KPIa %1,9an kokatu zen maiatzean. Zehatzago adierazita, ekainaren erdialdean 12 hilabeterako Euriborrak %2,08an kotizatzen zuen. CaixaBank Researchen arabera, moneta merkatuek aurreikusten dute Euriborra %1,9 eta %2,0 artean egonkortuko dela aurtengo gainerako hilabeteetan. Aurreikuspen hori bat dator Christine Lagardek egin berri dituen adierazpenekin; izan ere, Lagardek adierazi duenez, tasen zazpigarren jaitsiera jarraituaren ondoren, EBZk bere murrizketa zikloan etenaldi bat egiteko gertu egon daiteke. Izan ere, eperik laburrenek 12 hilabeterako Euriborraren azpitik kotizatzen dute, eta horrek erakusten du moneta erlaxazioaren zikloa amaitzen ari dela.

Espainiako Bankuak banku maileguei buruzko inkestan argitaratutako azken datuen arabera, Euriborraren jaitsiera hori hipoteka baldintzetara aldatzen hasi da, finantza erakundeek eskainitako tasetan hobekuntza txiki batekin eta hipoteka maileguak emateko irizpideak erlaxatuta. Horrek etxebizitzaren eskaria suspertzen eta higiezinaren merkatuaren susperraldia sendotzen lagundu du, INEk argitaratutako etxebizitzari buruzko hipoteka formalizatuen estatistikak jasotzen duen bezala.


Zehatz-mehatz adierazita, 2025eko lehen hiruhilekoan zehar, EAEko hipoteken merkatuak suspertzeko joera nabarmena erakutsi zuen, batez ere etxebizitzaren segmentuan. INEren datuen arabera, etxebizitza mota horretarako formalizatu ziren hipoteken kopurua %42,1 areagotu zen aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, eta datu horrek esan nahi du 6.547 hipoteka sinatu zirela aurtengo lehen hiru hilabeteetan, hau da, 2012ko lehen hiruhilekotik inoiz jaso den erregistrorik handiena. Gorakada hori, neurri batean, Euriborraren jaitsierak bultzatutako finantzaketa baldintzen hobekuntzak eta eskariaren dinamismo berrituak eragin dute, batez ere Bilbo eta Gasteiz bezalako metropoli eremuetan. Gainera, urtean zehar interes tasak jaisten jarraitzeko igurikimenak pertsona asko animatu zituen erosteko erabakiak aurreratzera.

Aldi berean, etxebizitza berriaren gaineko hipoteken batez besteko prezioak ere igoera handia izan zuen, %45,9ko hazkundearekin 2025eko lehen hiruhilekoan. Igoera horrek etxebizitzaren balioaren garestitzea eta eragiketa bakoitzeko finantzatutako batez besteko zenbateko handiagoa islatzen ditu. Hirigune jakin batzuetako eskaintza eskasak eta prestazio energetiko eta teknologiko handiagoak dituzten obra berriko etxebizitzek gero eta interes handiagoa izateak eragin dute prezioen gaineko presioa. Garestitze hori gorabehera, kreditu baldintzen hobekuntzari esker, erosteko interesa duten pertsona askok eskuragarritasuna mantendu ahal izan dute.

Etxebizitzaren hipoteken bilakaera

Batez besteko zenbatekoa (ezkerrean, milak)
hipoteka kopurua (eskuinean, milak)

Euriborra 12 hilera



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Euriborrek jaitsiera nabarmena izan zuen 2024ko martxoan erregistratutako %3,718tik 2025eko martxoan jasotako %2,398ra, eta, are gehiago, ekainean %2,0ra hurbildu zen. Hori dela eta, interes tasa aldakorrek hipoteken kontratazioak gora egitea espero zitekeen, interes tasek behera egin ahala aukera hobea izaten baita. Hala ere, kontrako eragina gertatu da, eta tasa finkoko hipotekek kontzentratu dute eskariaren zatirik handiena. Zehazki, hipoteka mailegu berrien %64,6 tasa finkoan formalizatu ziren, hau da, aurreko urtean baino 10 puntu gehiago. Portaera hori, batez ere, finantza erakundeek tasa finkoetan aplikatutako beherapenek eta horiek mailegu hartzaileei eskaintzen dieten egonkortasun handiagoaren pertzepzioak azaltzen dute.

Hala ere, hipotekak ematean izandako gorakada hori ez zen nahikoa izan kreditua uzkuertzeko joera orokorra lehengoratzeko. Finantzaketa kostua merkatu arren, EAEko kredituen bolumen osoak murrizten jarraitu zuen 2025eko lehen hiruhilekoan. Itxurazko kontraesan hori hainbat faktorek azaltzen dute. Alde batetik, ziurgabetasun ekonomikoa eta geopolitikoa oraindik ere familien eta enpresen gastu eta inbertsio erabakietan hautematen da, zorpetzea murriztea eta finantza posizioa indartzea erabaki baitute. Bestetik, finantzaketa baldintzak hobeak diren arren, banku erakundeek diru laguntzak emateko irizpide zuhurrak dituzte, batez ere arrisku handiagoko segmentuetan.

Horiek horrela izanda, 2025eko lehen hiruhilekoan, EAEko kredituaren bilakaerak aurreko hiruhilekoetan ikusitako joera uzkuurrari eutsi zion, baina moderazio txiki batekin. Espainiako Bankuak argitaratutako azken datuen arabera, maileguen bolumen osoa 65.717 milioi eurokoa izan zen, hau da, urte arteko %1,4ko jaitsiera iazko lehen hiruhilekoan metatutako

zenbatekoarekin alderatuta. Uzkurdura hori nabarmenagoa izan zen sektore publikoan, urte arteko zorpetzea %9,7 jaitsi baitzen, 7.946 milioi euroraino; zifra hori azken bost urteetako mailarik txikiena da, eta defizitari eusteko etengabeko ahalegina islatzen du. Sektore pribatuari emandako kreditua, berriz, ia ez zen aldatu (-%0,1) eta 57.770 milioi euro inguruan egonkortu zen. Beherakada oso arina bada ere, baieztatzen du EAEko familiek eta enpresek zorpetze maila gutxitzea lehenesten jarraitzen dutela ziurgabetasun ekonomikoko testuinguru batean, eta zorrarekiko esposizioa murriztea aukeratzen dute, finantza konpromiso berriak hartu beharrean.

KREDITU ETA GORDAILUAK

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2023	2024	2024			2025		Aldea 2022-II eta 2025-I artean	
			II	III	IV	I	I	Milioi €	Tasa
Kredituak	-4,9	-1,7	-2,1	-2,9	-1,7	-1,4	65.717,1	-6.911,9	-9,5
Arlo publikoa	-6,0	-4,2	1,0	-9,2	-4,2	-9,7	7.946,2	-2.262,8	-7,4
Arlo pribatua	-4,8	-1,3	-2,6	-1,9	-1,3	-0,1	57.770,8	-4.649,1	-22,2
Gordailuak	-1,4	4,2	2,9	5,0	4,2	2,6	99.587,8	1.163,3	1,2
Arlo publikoa	1,2	5,3	11,8	13,8	5,3	1,1	11.109,6	2.360,8	27,0
Arlo pribatua	-1,7	4,1	1,9	3,9	4,1	2,8	88.478,2	-1.197,5	-1,3
Agerikoak	-8,9	0,7	-6,2	-3,5	0,7	1,1	73.240,3	-9.777,0	-11,8
Eperakoak	92,3	24,6	82,7	64,4	24,6	11,8	15.237,9	8.579,5	128,9

Iturria: Espainiako Bankua.

Gordailuei dagokienez, EAEko eragileen aurrezkiak hazten jarraitu zuen, erritmo motelagoan bada ere. Gordailu guztiak 99.588 milioi eurokoak izan ziren, urte arteko %2,6ko hazkundera. Zehatzago adierazita, sektore pribatuko gordailuek %2,8 egin zuten gora. Hazkundera bereziki nabarmena izan zen eperako gordailuetan, %11,8 egin baitzuten gora 15.238 milioi euroraino, eta susperraldia sendotu egin zen, errentagarritasun oraindik erakargarriei esker, nahiz eta tasek behera egin. Ageriko eta kontuko gordailuak, berriz, %1,1 handitu ziren, balio eskasa, eperako gordailuek erregistratutako tasekin alderatuz gero, baina garrantzitsua, 2024aren amaieran hasitako goranzko joera sendotzen ari dela baitirudi. Sektore publikoak ere aurrezkia handitzen lagundu zuen, bere gordailuen %1,1eko hazkundearekin. Oro har, datuek erakusten dute ekonomia horrek finantzen saneamendua lehenesten jarraitzen duela, baina kreditua egonkortzen hasi dela eta aurrezkia sendotzen ari dela.

Aurreikuspenak

Nazioarteko merkataritzaren egoerak eragina izaten jarraitzen du AEBek neurri protekzionistak aplikatzearen ondorioz. Izan ere, Europar Batasunetik joaten diren inportazioei muga zergak handitu dizkie, altzairuaren, aluminioaren eta automobilaren sektorearen eta bere osagaien gaineko %10eko eta %25eko zergekin, hurrenez hurren. Azkenean, sektore estrategiko batzuk baztertu badira ere, hala nola produktu farmazeutikoak edo mikroprozesadoreak, Europako Batzordeak aurreikusten du eragin negatibo moderatua izango duela Europako ekonomiaren hazkundera, BPGaren bi hamarren ingurukoa, esportazioen jaitsieraren ondorioz (lehen fasean -%1,1etik -%1,5era, bere kalkuluen arabera). Horri erantzunez, EBren kontraneurriak aurreikusten dira MMAren mekanismoen arabera, eta, aldiz, gobernu estatubatuarrak mehatxatzen du muga zergak %20ra igoko dituela oro har, eta %50era arte altzairuaren, aluminioaren eta automobilen gainean.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2024	2025	2026	2024	2025	2026
Munduko ekonomia	2,7	2,2	2,3	3,8	3,0	2,6
AEB	2,8	1,5	1,6	3,0	3,0	2,8
Kanada	1,6	1,2	1,1	2,4	2,1	2,1
Japonia	0,2	0,8	0,7	2,7	2,8	1,6
Eurogunea	0,9	1,0	1,1	2,4	2,0	1,8
Europar Batasuna	1,2	1,1	1,4	2,8	2,1	1,9
Alemania	-0,2	0,1	1,2	2,3	2,1	2,0
Espainia	3,2	2,4	1,8	2,8	2,3	1,9
Frantzia	1,1	0,5	0,9	2,0	1,0	1,5
Herbehereak	1,0	1,3	1,1	3,3	3,2	2,5
Italia	0,7	0,5	0,7	1,0	1,8	1,7
Erresuma Batua	1,1	1,0	1,0	2,5	3,2	2,4
Asia Pazifikoa	3,9	3,5	3,5	1,6	1,4	1,6
Ekialdeko Europa	3,3	2,5	2,5	14,7	10,5	7,3
Latinoamerika (Venezuela ezik)	2,2	2,0	2,1	14,7	6,7	5,1

Iturria: Consensus Forecasts (2025eko ekaina).

Aldi berean, beste eragile batzuekin eginiko muga zergen negoziazioek, hala nola Txinarekin, eragin irregularra izan lezake EBN, sektore bakoitzeko hornidura kate globalen osaeraren arabera. Horrez gain, Ekialde Hurbileko liskarren gorakada berriak petrolioaren eta gas naturalaren prezioen igoera ekar lezake, batez ere gai horien garraio ibilbide nagusietan funtsezko pasabideak blokeatzeko aukerengatik. Era berean, gatazkak gora egiteak eta eskualdeko beste eragile batzuek parte hartzeak manufacturen munduko merkataritzan buxadura ekar lezake.

Merkataritza globalaren gaineko eragina esanguratsua da: Nazioarteko Diru Funtzak (NDF) beherantz berrikusi ditu munduko merkataritzaren hazkunde aurreikuspenak, 2025ean %1,7raino eta 2026an, berriz, %2,5eraino, hau da, ehuneko 1,7 eta 0,9 puntuko zuzenketa, hurrenez hurren, urrian egindako kalkuluen aldean. Horren ondorioz, hazkunde ekonomiko globalak lau hamarreneko murrizketa izan du urriko aurreikuspenarekin alderatuta, eta 2025ean ez du lortuko %3,0ko hazkunde tasara iristea, azaleratzen ari diren ekonomia batzuk sostengatuz, hala nola Txina (%4,0ko hazkunde estimazioarekin, urrian baino 5 hamarren gutxiago) eta Mexiko (-%0,3, -1,6 puntu urriarekin alderatuta), muga hesi berrien inpakturik handiena, beste ekonomia aurreratu batzuekin batera, hala nola Kanada, Erresuma Batua eta Japonia, Estatu Batuekin merkataritza lotura handiak dituztenak.

Tentsio geopolitikoek, merkataritza zatiketak eta banku zentralek finantza baldintzetan egindako doikuntzek markatutako testinguru horretan, hainbat erakundek AEBetako ekonomiaren moteltzea aurreikusten dute. Esate baterako, NDFk %1,8ra jaitsi du 2025erako hazkunde aurreikuspena (urtarrilean baino bederatzi hamarren gutxiago), eta gaineratu du inflazioak 2025ean (%3,0) eta 2026an (%2,5) jarraituko duela, eta ekaineko Consensus Forecasts panelak are beherago kokatu ditu zifra horiek: %1,5eko hazkundea 2025ean eta %1,6koa, berriz, 2026an, inflazioa %3,0tik gertu mantenduz. Muga zergen eta eragindako ziurgabetasunaren ondorio kaltegarriak lehen hiruhilekoko datuetan ikusi ahal izan dira, aurtengo lehen hilabeteetako kanpo merkataritzaren datuek aurreratu bezala. Ekoizpenak lehen hiruhilekoan izan duen hazkundea apur bat negatiboa izan da, inbentario gehikuntza gisa jaso ez diren inportazioen muga zergen iragarpenak eragin duen aurrerapen efektuaren ondorioz. Alderdi hori etorkizunean berrikus badaiteke ere, AEBko ekonomiaren bigarren hiruhilekoko bilakaerak gora egin beharko luke eragin beragatik (eta hala islatzen du ekainaren hasieran Erreserba Federalaren denbora errealeko ereduak), oraingoz ez baita ahultasun zantzurik ikusten barne kontsumoan.

Europako ekonomian, espero zitekeen bezala, portaera ez da hain homogeneoa. Europako Batzordearen arabera, Europar Batasunaren hazkundea %1,1ekoa izango da 2025ean eta %1,5ekoa, berriz, 2026an, hau da, aurreko udazkeneko aurreikuspenekin alderatuta, lau eta hiru hamarren jaitsi da. Berrikuspen horrek kanpoko faktoreei erantzuten die, hala nola deskribatutako nazioarteko merkataritzaren ahultzeari eta euroak dolarrarekiko duen

balioespenari berari, bai eta barne faktoreei ere, eta horien artean nabarmentzen da inbertsio maila txikia, diru politika gogortu zenetik. Hala eta guztiz ere, 2024ko laugarren hiruhilekoan eta 2025aren hasieran portaera nahiko sendoa izan zuten, kontsumo pribatuak eta esportazio garbiek bultzatuta, nahiz eta inbertsioak ahulezia erakusten jarraitu zuen. Zentzu positiboagoan, eta enpleguaren hazkundea apaldu arren, langabezia tasa %5,7ra jaitsiko da 2026an, eta produktibitatea handitzeak ekarriko du ia herrialde guztietan soldatek galdutako erosahalmena berreskuratzen amaitzea.

Ekaineko azken bileraren ondoren aurkeztutako aurreikuspenetan, EBZk hiru hamarren murriztu du 2025erako eta 2026rako inflazio aurreikuspena, %2,0ra eta %1,6ra arte, hurrenez hurren, energia prezioak murriztu direlako, industria produktuen prezioei eutsi zaielako (Txinatik datozen esportazioek presio gehigarria eragin dezakete horietan) eta dolarrak euroaren aldean balioa galdu duelako. Hala eta guztiz ere, azpiko inflazioan ere beheranzko ibilbidea aurreikusten da (%2,4 2025ean eta %1,9, berriz, 2026an), eta horrek interes tasen murrizketa zikloaren amaiera babesten du, interes tasa erreala EBZk berak zenbatetsitako interes tasa neutralaren tartean kokatu ondoren.

ESPAINIAKO EKONOMIARAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2025eko maiatza)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2025			2025	2026
	II	III	IV		
BPG	2,5	2,4	2,4	2,5	2,2
Kontsumo pribatua	2,9	2,5	2,4	2,8	2,3
Kontsumo publikoa	3,2	1,3	1,5	2,3	1,9
Kapital eraketa gordina	3,7	5,4	2,8	4,0	3,5
- Taldeko inbertsioa	6,9	7,2	0,7	5,6	5,3
- Landatutako aktiboen inbertsioa	4,5	3,2	2,4	4,0	1,3
- Eraikuntzako inbertsioa	2,1	4,7	3,7	3,2	2,5
Barne-eskaria	3,4	3,6	2,7	2,8	2,5
Esportazioak	1,3	1,2	1,7	2,3	2,4
Inportazioak	2,4	2,6	2,8	3,1	3,2

Iturria: Ceprede.

Aldiz, Espainiako ekonomiak ibilbide sendoa du, nahiz eta pixkanaka moteltzea aurreikusten den. Ceprederen arabera, BPGa %2,5 haziko da 2025ean eta %2,2 datorren urtean, kontsumo

pribatuaren dinamismoari esker, nahiz eta moteltzen joango den, eta kapital eraketa gordinaren igoerari esker. 2025ean, atzean geratuko dira kanpo sektoreak azken urteetan Espainiako ekonomiaren hazkundeari egindako ekarpen garrantzitsuak, eta kanpo sektorearen dinamika irauli egingo da turismo sektorearen hazkunde mugengatik eta merkataritza globalaren ziurgabetasunagatik. Enpleguari dagokionez, pertsona landunen kopurua %2tik gora handituko da oraindik 2025ean, eta tasa %1,5era jaitsiko da 2026an. Dinamismoa, neurri handi batean, biztanleria aktiboaren hazkunde nabarmenaren ondorioz izango da (%1,2 2025ean eta %1,0 2026an). Hori dela eta, langabezia tasa %10,6ra jaitsiko da 2025ean eta %10,1era 2026an, 2007tik izandako daturik onenak, nahiz eta produktibitatearen hazkundera izango den oraindik gainditu gabeko irakasgaia.

Duela gutxi, Espainiako Bankuak %2,4raino jaitsi zituen aurtengo aurreikuspenak, ez bakarrik muga zergen eraginaren ondorioz, baita lehen hiruhilekoaren igurikimenen azpitik egotearen eta INEk aurreko hiruhilekoak berrikustearen ondorioz ere. Ildo horretan, eskura dagoen koiunturako informazioaren arabera, erakunde gainbegiratzailerak adierazi du bigarren hiruhilekoan jarduerak moteltzen jarraituko duela, eta aurreikuspen hori AIReF-ren denbora errealeko ereduak ere mantentzen du (hiruhileko arteko %0,4). Inflazioa jaisteko aurreikuspenak nahiko egonkor mantentzen dira aurrekoekin alderatuta (%2,4 2025ean eta %1,7, berriz, 2026an), elikagaien ekarpen txikiagoari esker, nahiz eta 2025ean lau hamarren okertu azpiko inflazioaren igurikimena (%2,6 2025ean eta %2,1 2026an), zerbitzuen prezioak gora egiten jarraitzen duelako.

AURREIKUSPENAK EGITEKO HIPOTESIAK (2025eko ekaina)

Mailak eta urte arteko aldakuntza tasak

	2025			2025	2026
	II	III	IV		
Euriborra (3 hileko)	2,2	2,0	1,8	2,1	2,0
Euro dolar truke tasa	1,13	1,13	1,13	1,11	1,13
Espainiako BPGa	2,5	2,4	2,4	2,5	2,2
ELGAren BPGa	1,3	1,3	1,4	1,5	1,5
Euroguneko BPGa	1,1	0,8	0,6	1,0	1,2
Espainiako konts. pribatuaren deflakt.	3,1	3,6	3,0	3,2	2,3
Espainiako ondasunen esport. deflakt.	0,7	0,4	1,0	1,0	1,7

Iturria: Ceprede eta Europako Banku Zentrala. Hipotesien itxiera data: 2025eko ekainak 6.

Gertakari ugarik eragiten diete EAEko ekonomiaren aurreikuspenen hipotesiei aurreko hiruhilekoan hipotesiak formulatu zirenetik, txostenean zehar berrikusi den bezala. AEBetarako merkataritza fluxuetan merkataritza oztopo handiak iragarri ondoren dolarrak izan duen balio galera malkartsuaren ondorioz, euroarekin alderatuta, aurreikuspen horizontean 1,13 inguruko truke tasa hartu da agertoki nagusi gisa. EAEko ekonomiaren esportazio merkatuak ahuldu egingo dira merkataritza panorama berriaren aurrean, are gehiago Europako ekonomien kasuan (%1,0ko hazkundea 2025ean eta %1,2koa 2026an) eta ELGaren kasuan (%1,5 2025ean eta 2026an), nahiz eta aurtengo lehen hiruhilekoan uste baino gehiago hazi. Espainiako ekonomiaren kasuan, haren ondorioek zeharkako bideetatik irits dezakete, nolanahi ere. Hiru hilabeterako Euriborraren kasuan, inflazioaren eta, ondorioz, moneta politikaren bilakaerak interes tasen beherapen gehigarri gutxi ekartzen ditu, eta horrekin Euriborra %2 inguruan mantenduko da datorren urtearen amaierara arte.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2025eko ekaina)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2025			2025	2026
	II	III	IV		
BPG	2,1	2,1	2,0	2,1	1,7
Azken kontsumoa	2,4	2,3	2,1	2,3	1,8
Kontsumo pribatua	2,4	2,4	2,2	2,4	1,8
Kontsumo publikoa	2,1	2,0	2,0	2,0	1,7
Kapital eraketa gordina	2,5	2,5	2,2	2,4	2,1
Barne eskariaren ekarpena	2,4	2,4	2,2	2,3	1,9
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,3	-0,3	-0,2	-0,3	-0,2
Lehen arloa	-0,8	2,0	1,5	0,4	1,2
Industria eta energia	0,9	0,6	1,3	0,9	1,4
Eraikuntza	2,6	2,5	1,8	2,1	1,8
Zerbitzuak	2,6	2,5	2,2	2,5	1,8
Balio erantsi gordina	2,2	2,1	2,0	2,1	1,7
Ekoizkinen gaineko zergak	1,7	2,0	1,8	1,9	1,7
BPG nominala	4,6	4,6	4,3	4,5	3,8
BPGaren deflatorea	2,4	2,5	2,3	2,4	2,1
Lanaldi osoko lanpostuak	1,4	1,5	1,4	1,4	1,1
Landunak (BJA)	1,2	1,1	1,2	1,1	1,0
Langabezia tasa	6,7	6,6	6,7	6,8	6,6

Iturria: Ekonomia Zuzendaritza.


EAEko ekonomiaren aurreikuspenen eguneratzeak %2,1eko hazkundeari eutsi dio 2025ean, eta hamarren bat jaitsi da 2026koa, %1,7ra arte. Aurtengo lehen hiruhilekoan erakutsitako bultzadak, duela hiru hilabete aurreikusitakoa baino bi hamarren gehiago eta Espainiako ekonomiaren hiruhilekoko hazkundearen gainetik, urteko gainerako hilabeteetan izandako ibilbide ez hain bizia konpentsatuko du, kanpo merkatuen ahultzearen ondorioz, hiruhilekoen arteko hazkunde tasek eta kanpo eskariaren ekarpen negatiboak islatzen duten bezala.

Aurtengo lehen hiruhilekoan familien kontsumoaren igoera nabarmena (%2,6) hurrengo hiruhilekoetara hedatuko da, eta urteko zenbaketan iazkoarekin alderatuta %2,4 igotzea ahalbidetuko du. Kontsumo pribatuaren deflatorearen hazkundera oraindik ere handia izan zen lehen hiruhilekoan (%3,2), baina aurreikuspenaren horizontean prezioak egonkortzeak eta soldaten igoerak kontsumoak gora egiten lagunduko dute, nahiz eta enplegua sortzeko erritmoak nolabaiteko moteltzea izan 2026an ere. Inbertsioak nabarmen handitzen jarraituko duela aurreikusten da (%2,4 2025ean eta %2,1 2026an), eta ekoizpen agregatuarena baino tasa altuagoan, nahiz eta pixka bat beherantz berrikusten den, ziurgabetasunak eta kanpoko aurreikuspen okerragoek eragindako agertokiarekin alderatuta, aktibo finkoak gehien eskatzen dituzten sektoreetan.

Kanpo sektoreari buruzko igurikimenak ez dira hain positiboak, AEBen merkataritza biraketak eta tentsio geopolitiko gero eta handiagoek eragindako merkataritza tentsioen ondorioz. Duela bi urtetik hona EAEko ekonomiaren hazkundera oztokatzen duten Europako industrian, bereziki Alemaniakoan, dagoeneko ezagunak diren arazoez gain, Europako automobilgintzaren sektoreari muga zergak ezartzeak eragina izango du EAEko industrian, ziurgabetasuna sortzearen ondorioz euskal esportazioetan pisu handia duten beste inbertsio ondasun batzuei eragiteaz gain. Horrela, kanpo saldoaren ekarpena negatiboa izango da 2025ean hiru hamarren eta 2026an bi hamarren.

Sektoreen ikuspegitik, industria sektorearen hazkunde aurreikuspenean (%0,9) eragina dute kanpo sektorearen aurreikuspen okerragoek, orain arte aipatu den bezala. Hala eta guztiz ere, sektorearen egoerak urte amaieran hobera egitea eta, 2026tik aurrera, hazkunde tasak normalizatzea aurreikusten da, eta horrek hazkunde marjina handia ematen dio EAEko ekonomiari 2026tik aurrera. Zerbitzuen sektorea ere gorantz berrikusi da 2025ean, azken hiruhilekoen bultzadari esker. 2025ean, EAEko ekonomiaren balio erantsiaren hazkundearen buru izango da, eta %2,5 haziko da. Erritmo hori datorren urtean %1,8ra murriztuko da, kontsumo eskaera txikiagoa izango delako eta lan merkatua ez delako hain dinamikoa izango. Eraikuntza sektoreak %2,1 egingo du gora 2025ean eta %1,8, berriz, 2026an, eskaintzaren hazkundera bultzatuko duten finantzaketa baldintzen merkatzearen eta etxebizitza eskaera handiaren ondorioz.

BPGaren deflatorea %2,4 handituko da 2025ean, eta %2,1 datorren urtean. Igoera horiek 2024koak baino txikiagoak badira ere, prezioen osagai batzuk oraindik ere altu mantentzen direla adierazten dute. Alde batetik, kontsumo pribatuaren deflatorea oraindik %3 inguruan mantenduko da urtearen lehen zatian, ordutik aurrera leuntzeko, eta, bestetik, esportazioen prezioak inportazioenak baino neurri handiagoan igoko direla kalkulaten da, aurreikusitako merkataritza panoramaren ildotik. Horrela, termino nominaletan, kalkulaten da BPGa %4,5 haziko dela 2025ean, 101.701 milioi eurora iritsi arte, eta %3,8 2026an, 105.607 milioi eurotan kokatzeko.




Iturria: Ekonomia Zuzendaritza.

Azken hiruhilekoetan jaso den enplegua sortzeko erritmoa 2025 osora hedatuko da, eta, beraz, lanaldi osoko 14.000 lanpostu baliokide inguru sortuko dira; 2026an, berriz, igoera apalagoa izango da (%1,1), eta 11.000 enplegu berri sortuko dira. Horrela, itxurazko lan produktibitatearen hazkundera 2024koa baino handiagoa izango den arren, oraindik ere igoera hori serie historikoaren batez bestekoaren azpitik mantenduko da: %0,6 datozen bi urteetako bakoitzean, 1995etik izandako %0,9ko batez bestekoaren aldean. Aurtengo lehen hiruhilekoan biztanleria aktiboak izan duen jaitsierak (-%0,2) aurreikusitakoa baino langabezia tasa nabarmen txikiagoa ekarri zuen, eta horrek jarduera txikiagoko agertoki berri batera garamatza, nahiz eta ziurgabetasun handiaren mende egon. Langabezia tasa %7tik behera jaitsiko da datozen hiruhilekoetan, eta, 2026an landunen kopurua erritmo txikiagoan hazi arren, langabezia tasa %6,6ra jaistea lortuko da.

Ez dira asko agertoki makroekonomikoaren eguneratzeak Euskadirentzat, martxoarekin alderatuta. Cepredek bi hamarren beherantz berrikusi du 2025erako kalkulua, eta, 2026koa sei hamarren murriztu arren, baikorrenetako bat izaten jarraitzen du. Ildo beretik, BBVA Researchek ere gauza bera egin du, aurtengo hazkunde aurreikuspenak bi hamarren jaitsiz, eta bost hamarren datorren urterako. Horrela, aurreikuspenen batez bestekoa %2,1ekoa da 2025erako eta %1,8koa 2026rako, eta, beraz, Ekonomia Zuzendaritzarenak aurreikuspenen tarteko puntu batean mantentzen dira.

2025eko eta 2026ko aurreikuspenak (II)
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Ekonomia Zuzendaritza (2025eko ekaina), Ceprede (2025eko ekaina), Laboral Kutxa (2024ko abendua), Confebask (2024ko abendua), Euskal Ganberak (2024ko abendua), Hispalink (2024ko abendua), BBVA (2025eko ekaina).